# JAKINGARRIAK

DOKUMENTAZIO ZENTRUA 0-7 urte – IRAKASLE ESKOLA – Eskoriatza




## ESPAZIOAREN ANTOLAKETA

## 23. ZENBAKIA

1992ko Uztaila

# JAKINGARRIAK

**"JAKINGARRIAK" ZER DA?**

**"JAKINGARRIAK"** Eskoriatzako Irakasle Eskolan kokatuta dagoen Dokumentazio-Zentruko informazio-tresna da: bai Dokumentazio-Zentruak jasotzen eta egiten dituen materialen berri emateko tresna eta bai informazio bibliografikoa emateko ere.

D. Zentruak, Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan, lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaini nahi ditu; horregatik, sortu eta bildu ditugun baliabideak honako erizpide hauen araberakoak dira:

- Irakaskuntza funtzionala ahalbidetzen duten baliabideak.
- Haurren zeregin aktiboa bultzatzen duten baliabideak.
- Komunikaziorako eta elkarrekintzarako espazio aproposak sortzen dituzten baliabideak.

Nahiz eta D. Zentruaren esparrua 0-7 urte bitartekoa izan, badu adin honen mugetatik ateratzen den arlo bat, Hizkuntzaren didaktikarena, hain zuzen; arlo honen barruan erreziklaiaren inguruan bildutako hainbat material dago, eta baita Euskara-koordinatzaileekin elkarlanean sortutakoak eta bildutakoak ere.

"JAKINGARRIAK" aldizkarian eskaintzen diren materialak jasotzeko bide ezberdinak daude:

- Liburutegi-zerbitzua: Zerbitzu honen bidez liburuen mailegua egin daiteke.
- Fotokopiak: Artikulu, dokumentu eta baliabide batzuk eskuratzeko bidea eskaintzen du.
- Baliabideen mailegua: Zerbitzu honen bidez zenbait material eskaintzen da:
  - Diapositibak
  - Bideoak
  - ...

D. Zentrua Eskoriatzako Irakasle Eskolan dago kokatuta. Asteartetan egoten da irekita arratsaldeko 5,30etatik 7ak arte.

Arduradunak: Nerea Alzola
Mariam Bilbatua
Kolaboratzailea: Juanjo Otaño

(Oharra: Etorri nahi dutenek aurrez abisatzea komeni da)

# JAKINGARRIAK

**23. ALE HONETAN**
**AURKITUKO DUZUN INFORMAZIOA**

**BERRI BIBLIOGRAFIKOAK**

- Liburu berrien albisteak
- Aldizkarietako zenbait artikuluren erreferentzia laburrak.

**GAI MONOGRAFIKOA**

- Espazioaren antolaketa

**ESPERIENTZIAK**

- Axun Zabalo, Mª Eugenia Irazabal, Rosa Agiriano, Mila Etxezarreta, Xabier Etxeberria, Axun Mujika, Juanjo Kintela eta Koro Lete: "Espazioen antolaketa: Hezitzaileen genesia".
- Anselmo Vega: "Espazioaren banaketa".
- Arantza Lejarraga: "Haur eskoletako arkitektura eta espazioak".
- Aretxabaletako Pausoka Haur-Eskola: "Espazioa pausokan".
- Amara Berri Eskola: "Antolaketari buruzko gogoeta batzuk".
- Andoni Urzelai: "Txikienei egokitutako paradisua".

**BALIABIDEAK**

- Harbel magnetikoak eta franelografoak

# liburu berrien albisteak

**S. ANTUNEZ / L.M. DEL CARMEN / F. IMBERNON / A. PARCERISA / T. ZABALA** (1992): "Del proyecto Educativo a la Programación de Aula". Barcelona: Ed. Graó.




Hezkuntz-sistemak dakarren marku aldaketa ezezik, Erreformak irakaskuntzari buruzko filosofia eta ulertzeko moduan ere aldaketa bat dakarrela esanez laburbil daiteke liburua.

"Helburu jakin bat adierazten du egungo Erreformak: irakaskuntzaren kalitatea hobetzea. Helburu honen arian kurrikuluma aldatzea ere proposatzen du; eta esandakoa ez da ulertu behar soilik aldaketa formala bailitzen, ikuspegi berri bat balitz bezala, aldaketa sakona bezala baizik" (9. orr.).

Abiapuntu honetatik kurrikuluma nola ulertu eta nola gauzatzen den azaltzen dute autoreek.

Ikastetxearen Hezkuntz Proiektua -bere funtzioa, bere osagaiak eta burutzeko ildoak- aztertzen ditu liburuaren lehenengo zatiak. Bera da Eskolaren ardatza eta oinarrizko erreferentzia.

Erreformaren eredu kurrikularra da bigarren zatiaren gaia: kurrikuluma eta beronen ezaugarriak, bere iturri ezberdinetatik (epistemologia, pedagogia, soziologia eta psikologia) nola elaboratu. Zati honen amaieran, kurrikulumaren oinarri psikopedagogikoei buruz oso azalpen argia eta zehatza agertzen da.

Ikastetxearen Proiektu Kurrikularra aztertzen du hirugarren zatiak. Administraritzako orientabideak egokitzeko tresna da eta maila bakoitzeko Ikastetxearen hezkuntz-asmoak, eta baita lortzeko bideak eta eskuhartzeko proposamenak ere zehazten ditu.

Eguneroko lana, alegia, Gelako Programazioa, aipatzen du laugarren zatiak, programazio batek eskatzen dituen osagaiak eta pauso zehatzak adieraziz.

Bukatuz, bostgarren zatian, planifikazio-adibide bat dakarkigu, Ikastetxearen Hezkuntz Proiektutik abiatu eta Gelako Programazioarekin amaitu.

Laburbilduz, liburu argia eta praktikoa da, Ikastetxe bakoitzean Erreforma egokitzeko eta burutzeko gida bezala balio dezakeena.

**ARNAU, J., COMET, C, SERRA, J.M. eta VILA, I.:** "La educación bilingüe". I.C.E.: HORSORI. Barcelona, 1992.




Irakaskuntza elebidunean interesatuta dauden hainbat pertsonak (gurasoak, irakasleak,...) hainbatetan planteaturiko galderek liburu honetan aurki dezakete erantzuna eta gure ustez horixe da liburu honen aportaziorik garrantzitsuena: aztertzen diren gaien aukeraketa eta gai bakoitzaren barruan eskeintzen diren informazioen aukeraketa.

Lehenengo kapituluan, eredu elebidunen antolaketari buruzko deskripzioarekin batera, eredu hauetan irakaste-ikaste prozesuak dituen berezitasunetan sakontzen da, esperientzien arrakastan, metodologiak berak duen arrakasta azpimarratzen delarik. Irakaskuntza elebidunen esperientzietatik ateratako datuen bidez, funtsezkoak diren hainbat gai jorratzen dira: Irakasle ikasleen arteko interakzioa, komunikazioa ziurtatzeko eta aberasteko irakasleek erabiltzen dituzten estrategiak; bai hizkuntzaren erabilerari dagozkionak (informazio mota, informazio kopurua...) zein komunikazioa ziurtatzeko beste elementu lagungarrien erabilerari dagozkionak.

Bestalde, informazio guzti hauen iturri diren ikerketen aipamenak direla medio, informazio ugari

eskeintzen zaio irakurleari, nahi izanez gero gaia sakontzen jarraitzeko.

Liburuan aztertzen den bigarren gaia, estatu espaniarreko eredu elebidunena da. Kapitulu honetan hizkuntzaren normalizazio legetik abiatuz estatuko elkarte autonomo ezberdinetan irakaskuntza elebiduna nola antolatu den, azken urteetan eduki duen eboluzioa, lortu diren emaitzak eta prozesuan zehar aurkitutako oztopoak azaltzen dira, datu estatiztikoez baliaturik.

3. atalean, murgiltze ereduen inguruan, Kanadan eta Katalunian sortutako esperientzietatik abiatuz, alde batetik ereduaren diseinuaren deskribapena egiten da, eta, bestetik, ereduak arrakastatsua izateko bete behar dituen baldintzak eta martxan jartzeko erizpideak azaltzen dira.

Baldintza orokorrak (gurasoen nahia eta inplikazioa, irakaslegoaren prestakuntza...) azpimarratzeaz gain, tokian tokiko berezitasunei erantzutea zein garrantzitsua den nabarmentzen da; hau da, $H_1$ eta $H_2$en tratamendua hizkuntza bakoitzaren egoera soziolinguistikoaren arabera aukeratu behar da. Informazio guzti hauek oso baliagarriak izan daitezke ereduen aldaketaz hausnartzen ari diren irakasle zein gurasoentzat. Azterketa bukatzeko, Catalunyan eredu hauek nola antolatu diren eta lortu dituzten emaitzak azaltzen dira.

4. kapitulua murgiltze ereduaren esperientzia metodologiaren ikuspegitik azaltzen da. Catalunyan, esperientzia honen inguruan esperimentatu diren zenbait proposamen didaktiko deskribatzen dira, ahozko hizkuntza lantzeko zein idatzizko hizkuntza garatzeko.

# aldizkariak

## CUADERNOS DE PEDAGOGIA

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 199, 1992ko urtarrila**




Erreforman sarritan aipatzen den "hezkuntzaren kalitatea" kontzeptua zer izango ote da? nola neur daiteke?.

Cuadernos de Pedagogia aldizkariaren ale honetan "hezkuntzaren kalitatea" dela eta, galdera hauek eta beste hainbat planteatzen dira. Hona hemen hainbat artikulu:

**ALVAREZ, J.M.: "La ética de la calidad", 8-12 orr.**

**ALVARO, M.: "El proyecto de la OCDE. Indicadores educativos", 13-17.**

**MARCHESI, A.: "La Reforma y el proyecto curricular de centro", 18-21.**

**DOMENECH, J., VIÑAS, J.: "Cien medidas para mejorar la escuela pública", 22-24 orr.**

**ALVARO, M., IZQUIERDO, M.C.: "Para saber más (Para ampliar información sobre indicadores educativos), 25-26 orr.**

**ABOFILIA, R.: "Yo quiero ser...", 28-29 orr.**

Artikuluak, 5 urteko haurren gela batean gai desberdinak lantzeko (lanbideak lantzen, ekintzen antolaketan,...) gurasoen partaidetza nolakoa izan den kontatzen digu.

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 200, 1992ko otsaila**

**BATZU: "Cien libros para cambiar la escuela", 8-27 orr.**

Arlo edo gai aukeratu batzuren inguruan (azterketa sozio-politikoa, azterketa historikoa, antolaketa, etab.) autoreek ehun liburu aukeratu




eta komentatu dituzte.

Irakasleentzat lagungarri izan daiteke, liburu gehienak nahiko oinarrizkoak (denak errazak eta hasierako mailakoak) direlako. Egileen aukeraketa dela kontutan izanik, orientazio moduko bat besterik ez da.

**JUAN, V.M.: "Aprender de los iguales", 28-30 orr.**

Poema bat abiapuntutzat harturik, elkar-lana eta kooperazioa Haur-Eskolan nola landu daitezkeen azaltzen digu artikulu honek.

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 201, 1992ko martxoa**

**MARTINEZ, M.: "El estado de la cuestión", 8-11 orr.**

1970. hamarkadan mundu osoan demokraziarantz abiatzeko sortu ziren mugimenduei buruz azaldutako azterketa ezberdinetan, autore ezberdinak bat datoz esatean, Demokrazia dela gaurko mundu honetan legezkotasun ideologiko zabala daukan gobernu eredu bakarra.




**PUIG ROVIRA, J.M.: "Objetivos y orientaciones", 12-14 orr.**

Artikulu honek, Haurtzaro-Hezkuntza eta lehen eta bigarren mailako irakaskuntzan dauden haurrentzako Etika-Hezkuntzari dagokion kurrikulumerako hastapenak aurkeztu nahi ditu.

**BATZU: "Los contenidos", 15-18 orr.**

Artikuluak, Etika-Hezkuntzako kurrikuluma egiteko, eduki espezifiko desberdinak finkatzeko jarraitu den prozesua adierazten du. Ikerketa horren emaitzak eta, konkretuki, ekintza, prozedura eta baloreei buruzko edukiak ere aurkezten ditu.

**BUXARRAIS, M.R.: "Métodos y técnicas", 20-23 orr.**

Etika-Hezkuntza aurrera eramateko kontutan hartzekoak diren honako metodo eta teknika hauek aurkezten ditu artikuluak: baloreen sailkapena, gai moralez eztabaidatzea, ulermen kritikoa, eta rol-jolasak.

**PUIG, J.M.: "Para saber más", 24-26 orr.**

Etika-Hezkuntzari buruzko bibliografia.

**MASNOU, F.: "Un programa de educación moral", 28-30 orr.**

Haur-Eskolako haurren aspektu pertsonalak eta gizartearekiko garapena bultzatu asmoz burutu den programa baten elaborazioa eta aplikazioa azaltzen du artikuluak.

**DIEZ, M.C.: "El árbol de las galletas", 32-34 orr.**

Patioan dauden zuhaitzak ezagutzeko proiektua praktikara nola eraman deskribitzen du artikuluak.

**MENDEZ, L.: "Jugar a casitas", 56-58 orr.**

Artikulu honetan, "El Arco Iris" Haur-Eskolan laguntza-irakasleak integrazioa bultzatzeko etxearen txokoa nola antolatzen duen ikus dezakegu.

**BIEDMA, J.: "Educación o postmodernez", 66-67 orr.**

Autoreak, gaur eguneko irakaskuntzak dituen akatsak aipatu batetik, eta irakasleek galduta dauzkaten printzipio batzuk berrindartzeko egin behar dutenari buruz bestetik, bere eritzia ematen du; eritzi gogorra baina ondo arrazoitua.

**CUADERNOS DE PEDAGOGIA 202, 1992ko apirila**

**BARBA, D., SEGARRA, L.: "Problemas sin problemas", 8-9 orr.**

Gure ikasleek zergatik baztertzen dituzte matematikak?, nola azal daiteke, porrot eskolarrak gai honetan daukan eragina?




**CORBALAN, F.:"¡Qué divertido es pensar!, 10-12 orr.**

Artikulu honek, matematikako klaseetan ikerketak egiteko dagoen beharra eta era honetako ikerketen garrantzia azpimarratu nahi du.

**SANCHEZ, I., VARA, M.J.: "Unos días en la granja", 22-24 orr.**

Irakasle eta ikasle talde bat hiritik "El Viejo Chopo" granja-eskolara egun batzuk pasatzera joan da. Artikulu honetan, bertan gertatutakoa eta aurreko prestakuntzak azaltzen dira.

**BATZU: "Resolución de problemas", 26-30 orr.**

Eskolan "problema" hitza aspertzearekin lotzen da. Hemen, aldiz, problemak egitea dibertigarria izan daitekeela adierazten zaigu.

**HOUSE, E.R.: "Gran política, pequeña política", 51-57 orr.**

Testu honek, Hezkuntz Politika neoliberalen berrikuspen bat egiten du. Era berean, Politika molde honek ekonomiaren gorabeherekin duen erlazioa erakusten digu.

**ALBERO, M.: "El niño ante el televisor", 59-62 orr.**

Haurra, telebistaren aurrean dagoenean, jasoko dituen mezuen jarrera baloratiboak eta kreatiboak garatzeko, azpimarratu egin nahi du artikulu honek eskolan edota familiarekin egoteak daukan garrantzia.

**HERNANDEZ, F.: "A vueltas con la globalización", 64-66 orr.**

Kontzeptu honek, irakurketa eta interpretapen ezberdinak dakartza. Gainera, teoria eta praktikaren artean, alde haundia dago. Autorea alde honen zergatia azaltzen saiatzen da.

**"El desarrollo profesional del profesorado", 80-81 orr.**

Lanbideari, profesionaltasunari, profesionaltasun ezari eta garapen profesionalari buruzko titulu aukeraketa bat.

## L'ECOLE MATERNELLE

**L'ECOLE MATERNELLE 5, 1992ko urtarrila**

*• Haur liburua*

**JARRY, J.P., PARENT, B.: "Des livres entre 2 et 3 ans... Des contenus", 21-22 orr.**

**MARTINET, N., LOOTEN, M.C.: "Les prolongements: Petit Ours Brun dans les autres sections", 23-24 orr.**

*• Esperientzi arloa/Teknologia*




**NEUNREITER, J., NOTHISEN, M.J.: "De l'oeuf au têtard, du têtard à la grenouille", 25-26 orr.**

**GILBERT, P., ROQUAIS, CH.: "Les escargots", 33-34 orr.**

**MEYER, C.: "Expérimentons avec des balances", 37-38 orr.**

*• Hizkuntza/Irakurketa-Idazketa*

**POQUET, D.: "Donner la parole à l'image", 27-28 orr.**

**HEQUET, F.: "Le menu de la cantine", 51-52 orr.**

*• Matematika*

**BONTEMPS, Ch.: "La construction du nombre", 29-30 orr.**

*• Musika*

**GOEPP, CH.: "Les tubes sonores", 45-46 orr.**

*• Plastika*

**BENOT, A.L.: "Intervenir sur un paysage", 47-48 orr.**

**L'ECOLE MATERNELLE 6, 1992ko otsaila**

*• Haur liburua*




**JARRY, J.P., PARENT, B.: "Reconnaître l'objet livre", 17-18 orr.**

*• Matematika*

**BONTEMPS, Ch.: "La construction du nombre", 21-22 orr.**

*• Psikomotrizitatea*

**JOZELET, M.C., LABARTHE, D.: "L'expression corporelle comme support à l'imaginaire", 23-24 orr.**

*• Hizkuntza*

**CONTE, C.: "Donner la parole à l'image: l'écrit du dialogue et de l'intonation", 25-26 orr.**

# Berri Bibliografikoak

HEQUET, F.: "Le calendrier", 53-54 orr.

*• Esperientzi arloa/Teknologia*

PERIANO, V.: "Le chat et la souris", 31-32 orr.

NOTHISEN, J., NEUNREITER, M.J.: "De la graine aux haricots", 35-36 orr.

ETNER, T.: "L'élevage du ver de terre et son intérêt", 49-50 orr.

*• Musika*

ROYER, G., LOOTEN, C.: "Le conte musical à l'école maternelle", 43-44 orr.

L'ECOLE MATERNELLE 7, 1992ko martxoa




*• Antolaketa pedagogikoa*

ROCHETTE, Ch.: "Autour du petit-déjeuner", 17-18 orr.

*• Haur Liburua*

PARENT, B: "DES CONTENUS", 19-20 ORR.

HÉQUET, F.: "A partir du texte d'un album: canard", 51-52 orr.

*• Esperientzi arloa/Teknologia*

DEFER, J.: "La présence électrique", 21-22 orr.

SOLANO, A.: "Les papillons", 35-36 orr.

PERIANO, V.: "Les poissons", 43-44 orr.

CLERICE, M., LANDRY, C.: "L'aquarium", 45-46 orr.

*• Matematika*

BONTEMPS, C.: "La construction du nombre", 25-26 orr.

*• Informatika*

HEUDE, F.: "L'ordinateur dans la classe", 27-28 orr.

*•Plastika/Artea*

BATZU: "Eveil esthétique: le noir et le blanc", 29-30 orr.

MOUCHEL, S.: "La fleur élément pictural", 31-32 orr.

*• Atzerriko hizkuntzak*

MATSCHULAT, F.: "Langue et littérature", 37-38 orr.

*• Ikusentzungailuak*

COURTAUX, Ch.: "Le rétroprojecteur", 49-50 orr.

L'ECOLE MATERNELLE 8, 1992ko apirila

*• Elebitasuna*

GAUTHIERM, T.: "Introduction à une pédagogie du bilinguisme en école maternelle", 19-24 orr.




*• Gorputza*

ROCHETTE, Ch.: "Autour de notre corps", 25-26 orr.

*• Haur liburua*

BATZU: "Des contenus", 27-28 orr.

*• Esperientzi arloa/Teknologia*

SOLANO, A.: "L'élevage du ténébrion", 31-32 orr.

DEFER, J.: "Propulsion d'un bateau", 47-48 orr.

CLERICE, M.: "L'aquarium", 53-54 orr.

*• Atzerriko hizkuntzak*

MATSCHULAT, F.: "L'allemand à l'école maternelle", 39-40 orr.

*• Artea*

MOUCHEL, S.: "Rencontre avec Claude Monet", 41-42 orr.

*• Ikusentzungailuak*

LEROUX, M.: "La diapositive", 43-44 orr.

*• Irakurketa-Idazketa*

HEQUET, F.: "A partir d'une affiche", 59-60 orr.

## INFANCIA

INFANCIA 11, 1992 urtarrila-otsaila




**ECHEITA, G.: "El aprendizaje significativo", 4-6 orr.**

**VERASTEGUI, A.: "Apuntes para la paz", 7-8 orr.**

Haurren arteko biolentzia eta gatazken aurrean hezkuntzak hartu behar duen jarrera eta transmititu behar dituen baloreak ematen ditu aditzera.

**"Posturas sindicales ante el desarrollo de la LOGSE. Federación de Enseñanza de CC.OO. Secretaría de Enseñanza Pública de FETE-UGT", 10-11 orr.**

**TARDOS, A.: "La mano de la educadora", 14-18 orr.**

Haur-Eskolako profesionalentzat hain ezaguna den Budapesteko Lóczky Erakundeak betidanik garrantzi handia eman izan dio irakasleen prestakuntzari, haurren hezkuntzan irakasleen eragina oinarrizkoa bait da.

**PABLO, P.: "Algunas reflexiones en torno a la formación de los educadores y educadoras de los niños/as de tres años", 20-24 orr.**

Orain arte Haur txikien irakasleen prestakuntza iraunkorrean egin dena aztertuz, etorkizunari begira prestakuntzan bide berriak ireki ditzakegu.

**VALERO, L.: "Conocer la ciudad, una gran aventura", 25-28 orr.**

Eguneroko gauzak begi berriekin begiratu, pertsonen ohiturak ezagutu, xehetasun txikiez konturatu,... haur txikientzat oso interesgarria izan daiteke.

**RED DE MODELOS DE ATENCION A LA INFANCIA DE LA CE: "Informe del seminario técnico sobre la corresponsabilización en la atención a la infancia", 29-34 orr.**

**FERREIRO, A.: "¿Cómo nos situamos los profesionales de Educación infantil ante el desarrollo de la LOGSE?, 35-37 orr.**

**CANALDA, G., TORO, J.: "El estrés en la primera infancia", 41-43**

Haurrak konfliktuak eta krisialdiak izaten dituenean familia eta eskola laguntza sozial eta afektiboa emateko garrantzitsuak izan daitezke, eta dira, kasurik gehienetan.

INFANCIA 12, 1992ko martxoa-apirila




**MOLINA, L.: "La observación en la escuela", 4-8 orr.**

Hezkuntz ikerketarako behaketa oso garrantzitsua da. Hobeto ulertzeko behatzen dugu, eta hobeto ulertu ondo jokatzeko.

**Secretaría de la Mujer del STEE-EILAS. Comisión de Educación de la Asamblea de la Mujer de Bizkaia: "Coeducación", 9-10 orr.**

**COLS, C.: "Las pequeñas cosas que traducen unos valores", 12-15 orr.**

Eguneroko gauza txikiak kontuan hartzea hezkuntzaren helburu garrantzitsua da eta norberaren garapenerako bide zehatza eta baliogarria.

**FERRER, I.: "El niño sordo y la escuela infantil: detección e integración", 16-20 orr.**

**FORMAN, G.: "Niños y ordenadores", 22-25 orr.**

Artikulu honen gaia errepikapenaren balorean datza. Haurrak bere sormenak errepikatzen dituenean (ikerketa honetan, ordenadorearen

pantailan) erreflexionatzeko ahalmena ari da lantzen.

**TRIGO, J.: "Cómo viven los niños la separación de sus padres", 30-32 orr.**

Haurren erantzunak haien ezaugarrien arabera emango dira. Asko idatzi da honetaz, baina hainbat familiatan, banaketa, irtenbiderik onena izan daiteke.

**VELEZ, R.: "Arquitectura innovadora en el campo de la educación infantil", 33-35 orr.**

Murtziako Archena herrian egindako Haur Eskolako Zentru berriaren ezaugarri espazial batzuk.

**CANALS, D.: "Termorregulación", 36-38 orr.**

Hotz egiten duenean nola mantentzen dugu gure tenperatura?
Ze mekanismo dauzkagu?
Haur txikiak eta nagusiak mekanismo berberak dauzkagu?

**GANDINI, L.: "Llevar a los niños a la cama", 39-41 orr.**

Oheratzerakoan, gaueko rituala oso afektiboa eta soziala da.
Ez da soilik gorputzaren behar fisiologiko bat betetzea...

**ROS, R.: "El cuento de los vestidos nuevos del emperador o 'de lo que contesció a un rey con los burladores que ficieron paño", 42-43 orr.**

Ipuina, komentarioa eta epilogoa.

## INFÀNCIA

**INFÀNCIA 64, 1992ko urtarrila-otsaila**




**MARTIN, L.: "L'educació dels més petits, avui", 3-5 orr.**

**SELVA, M.:"Els Simpson o com una família americana es dóna cops contra la paret sense fer-se mal", 6-7 orr.**

Telebistako Simpson familiak "ignorantziaren kulturaren" karikatura izan nahi du...
Artikuluak programa hau aztertzen du.

**BATZU: "Menjar a l'escola bressol. El plaer de menjar", 9-12 orr.**

**ULSAMER, I.:"La llar dels infants. Una institució educativa del kibutz israelià", 13-16 orr.**

Gizarte alternatiboak diren kibutzetan, bi sexuen arteko berdintasuna errespetatzeko Haur-Eskolen garapena oinarrizko elementua izan ohi da.

**JENSEN, K., SAUGMANN, L.: "Quan es té una bona història, s'ha d'escriure", 17-23 orr.**

Dinamarkako Haur-Eskolako ikastetxe batean 6 urtetan zehar haurrekin egindako liburuak: edukiak, egitura, funtzioa.

**MATO, C.: "Els drets de la infància els anys noranta", 27-30 orr.**

**GUIBOURG, I.: "La construcció de la identitat del nen", 31-33 orr.**

**INFÀNCIA 65, 1992ko martxoa-apirila**




**SOLER, J.: "Les festes populars i els seus genis", 24 orr.**

Jaien magiaren eta magoen bila...

**CREIXAMS, Q.: "L'educació plàstica en l'etapa infantil", 5-7 orr.**

Pertzepzioa oinarrizko elementua da plastika hezkuntzan.

**BINIES, P.: "Conversa amb Dolors Canals", 9-10 orr.**

"Desenvolupament Humà del Naixement als tres anys" Zentrutik, D. Canalsek haur txikien ekintza fisikoez ikertzen du. Elkarrizketa honetan bere teoriak aurkezten ditu.

**ODENA, P.: "El joc heurístic amb objectes", 11-14 orr.**

Jolas heuristikoari buruz, 1991ko martxoan Parisen egindako erakusketan agertu zen testua.

**VALLES, J.: "A la classe de tres anys, també hi podem fer matemàtiques", 15-18 orr.**

**DE PABLO, P.: "L'educació infantil a l'Equador", 23-27 orr.**

**SAINZ, F., TIZON, J.I.: "Infància i migració", 36-39 orr.**

## PERSPECTIVA ESCOLAR

**PERSPECTIVA ESCOLAR 159, 1991ko azaroa**




**DOMENECH, J., VIÑAS, J.: "Qualitat educativa i tipologia de centres", 2-7 orr.**

Herri txikietako Ikastetxe mota desberdinen azterketa: kalitatea, zerbitzuak, etab.

**TOUS, J.L.: "El mestre, la mestra, elements bàsics per culturitzar l'escola rural", 12-16 orr.**

Irakasleek herri txikietako eskola zentru kultural garrantzitsua bihur dezakete.

**BIBLIOTECA ROSA SENSAT: "Bibliografia sobre escola rural", 29-30 orr.**

**BATZU: "Voleu fer astronomia a parvulari i cicle inicial?. Un motiu per aprendre a observar i experimentar", 39-42 orr.**

Haur Eskolako haurrekin, eguzkia eta ilargiari buruz zer landu eta ikas dezakegu?

**PERSPECTIVA ESCOLAR 160, 1991ko abendua**

**QUESADA, E.: "Per una actuació no sexista a l'escola", 59-62 orr.**

Eskola Publiko batean Hezkidetza landu nahian egindako esperientziaren azalpena.




**PERSPECTIVA ESCOLAR 161, 1991ko urtarrila**




**VILARRASA, A.: "Materiales curriculares: la reforma de los materiales", 2-6 orr.**

**REDACCIO DE LA REVISTA INFANCIA: "Materials curriculars i reforma als 0-6", 11-14 orr.**

**BARO, M., MAÑA, T.: "La biblioteca: una eina per a la reforma", 20-22 orr.**

**BIBLIOTECA ROSA SENSAT: "Bibliografia sobre materials curriculars", 28-29 orr.**

## CLIJ

**CLIJ 35, 1992ko urtarrila**

**COLOMER, T.: "Escrito en democracia. La literatura infantil y juvenil en castellano", 7-19 orr.**

Gaztelerazko haur eta gazte-literaturak aurkezten dituen ezaugarririk garrantzitsuenak ematen ditu aditzera eta 1975 artekoarekin alderatuta hainbat ezberdintasun jorratzen ditu.




**CLIJ 36, 1992ko otsaila**




**POLANCO, J.L.: "Rodari: las provocaciones de la fantasía", 12-20 orr.**

1991ko urriaren 25 eta 26an Italiako Orvieto hirian eta Rodariren inguruan, kongresu bat (Fantasiaren probokazioak. Gianni Rodari, idazlea eta hezitzailea) egin zen. Artikulu honen autorea han gertatu zena kontatzen saiatu da.

**TOURNIER, M.: "¿Existe una literatura para niños?, 52-55 orr.**

"Viernes o la vida salvaje" liburuaren idazleari, berak idatzitako Robinson Crusoeren bertsioari buruzko gorabeherak ematen dizkiote Haur Literaturari buruz hainbat gogoeta egiteko.

**CLIJ 37, 1992ko martxoa**

**BARTOLOME, J.L.: "Cuentos ingleses de gigantes", 7-16 orr.**

Erraldoiek leku berezia dute herri desberdinetako literaturan. Artikuluaren egilea Britania Handiko ipuinetan murgiltzen da, erraldoien irakurketa sinbolikoa eskaintzeko.




**BARCENA, C.G.: "Michael Ende, un hacedor de fantasías", 18-21 orr.**

Enederen oinarrizko biografia eta idazle honek Tokion 1986an ospatu zen I.B.B.Y.ren Kongresuan eman zuen hitzaldiaren laburpena.

**CLIJ 38, 1992ko apirila**

**Monografikoa: "Informe: Premios del 91", 7-55 orr.**




1991n Espainiako Estatuan Haur eta Gazte Literaturan 38 sari eman dira. Hauetatik, 13 liburu katalanez idatzitakoak izan dira, lau euskaraz eta bi gailegoz.

Euskal idazle eta ilustratzaile sarituak hauek dira: Yolanda Arrieta (Bapore saria), Mariasun Landa (Euskadi saria), Asun Balzola (Euskadi saria-ilustrazioa eta Fundación Santa María saria-ilustrazioa), Patxi Zubizarreta (Lizardi saria).

## INFANCIA Y APRENDIZAJE

**INFANCIA Y APRENDIZAJE 57**

**Juan Ignacio Pozo, Maria del Puy Pérez, Angeles Sanz eta Margarita Limón: "Las ideas de los alumnos sobre la ciencia como teorías implícitas".**




Azken urte hauetan kontzeptu zientifikoen prozesuari buruz bi ikuspegi desberdin egon dira; batetik Piagetiar teorian oinarritutako ikuspegia, non azpimarratzen bait da fenomeno

zientifikoei buruz dauzkagun errepresentazioak, egitura logiko orokor baten arabera tajutzen direla. Teoria honetan homogeneitatea azpimarratzen da. Bestetik, aurrezagupenen teoria, non ikasleek ikaskuntza aurretik dituzten kontzeptualizazioak azpimarratzen bait dira. Kontzeptu hauek espezifikoak dira, eta aspektu hau da, hain zuzen ere, teoria honek azpimarratzen duen ikuspegia. Ikuspegi hauen aurrean hirugarren bat ere azaltzen dute autoreek: "teoria inplizitoak" Gizabanakoak berak sortu ditu teoriak ingurunea antolatzeko eta azaltzeko.

**Julie C. Rutkowska: "Una alternativa computacional al niño piagetiano".**

Autorearen ustez, Piagetek planteatutako zenbait baieztapen hobeto uler ditzakegu kontzeptu konputazionalez baliatuz.

**Juan E. Jimenez: "Metaconocimiento fonológico: estudio descriptivo sobre una muestra de niños prelectores en edad preescolar".**

Artikulu honetan aurkezten den ikerketak, Haur-eskola bukatzerakoan haurrek duten ezagupen metafonologikoa aztertzen du.
Ikerketa honetan, beste hizkuntzetan egin diren ikerketetan bezala, baieztatu egiten da, haurrek, silabak bereizteko trebetasuna lehenago norbereganatzen dutela, eta ondoren egiten dutela hizkien bereizketa fonetikoa.

## COMUNICACION LENGUAJE Y EDUCACION

### COMUNICACION LENGUAJE Y EDUCACION 11-12, 1991




Matematikaren didaktikari buruzko ale monografiko honetan, perspektiba desberdinetatik arlo honen baitako hainbat eduki lantzeko metodologia aztertzen da, hala nola: kalkulua, geometria...
Artikulu batzutan perspektiba orokor batetik aztertzen da matematika arloaren ikaste prozesua eta irakaskuntza, beste batzutan, ostera, adin eta eduki konkretuen irakaskuntza hartzen da gaitzat.

### COMUNICACION LENGUAJE Y EDUCACION 13, 1992




Ordenagailuaren ohizko erabilera irakaskuntzan desegokia izan da orain arte, alde batetik ez delako gelako ekintzekin integratu (informatika gelara mugatu da bere erabilera) eta bestetik informatikoen esku gelditu delako. Benetako erabilera didaktikoak irakaslearen eta ikasleen beharrei informatikaren bidez erantzutea eskatzen du.
Perspektiba honetatik planteatzen dira monografiko honetan azaltzen diren bi artikulu multzoak:

- Planteamendu orokorrak
- Ordenagailuen aplikapenak

## ISILIK

### ISILIK, 14. alea

**Murgiltze bidean; Euskal Herrian eta Canadan.**




**Josu Sierra: "Murgiltze metodoa eta Irakaskuntza Elebiduna Euskal Herrian".**

Murgiltze ereduaren antolaketaren deskribapenarekin batera, Euskal Herrian bigarren hizkuntzaren irakaskuntzarako dauden ereduak eta bakoitzean lortutako emaitzak, konparatu egiten dira artikulu honetan irakaskuntza elebidunaren datuekin. Kanadako esperientziak gure kasuan eduki dezakeen arrakasta aztertzen da.

# Berri Bibliografikoak

**Felix Etxebarria: "Euskal Eskola (Elebitasunari buruz 20 urtez ikerketan)":**

Euskal Herrian irakaskuntza elebidunaren inguruan egindako ikerketen azterketa egiten du autoreak, ondoko puntu hauek sakontzen dituelarik:

- Ikerketen kezka nagusiak
- Ikerketa garrantzitsuenak
- Emaitzak: lehen hurbilketa

**Fred Genesserekin solasean:**

Lore Herriondok eta Fito Rodriguezek egindako elkarrizketa honetan, murgiltze ereduari buruzko galderak erantzuten ditu Genesse irakasleak. Hauek dira elkarrizketan zehar jorratzen diren zenbait gai:

- Gurasoen jarrerak
- Ikasle gutxiagotuen kasua
- Murgiltze ereduaren antolaketa

**Jacques Rebuffot: "Frantses Murgilketa. Balantzearen garaia ote?"**

Canadako irakaskuntzan murgiltze ereduak eduki duen hazkuntza, izan dituen oztopoak eta oraindik erantzun gabeko zenbait galdera aztertzen dira artikulu honetan.

**Gilles Bibeau: "Murgiltze metodoa. Zehaztu beharreko formula pedagogikoa"**

Monique Lebrunek egindako elkarrizketa honetan Bibeau irakasleak bere jarrera kritikoa azaltzen du murgiltze ereduarekiko, bereziki metodoaren errendimendu pedagogikoarekiko, bere ustez murgiltze eredua ikasleen beharretara egokitu beharrean gurasoen helburuetara egokitzen da eta.

**Fito Rodriguez Bornaetxea: "Gazteleraren Irakaskuntza Euskal Eskolan (AIAko adibide pedagogikoa)".**

Aiako haurren gaztelania mailaz zegoen kezkari erantzuteko egin den esperientzia honetan, Soziolinguistika hartu dute abiapuntutzat. O.H.O. euskaraz egiteak herriko biztanleentzat ekarri dituen abantailez jabetu ondoren herritarrak , egoera soziolinguistiko honen aurrean, gaztelania hobeto ezagutzeko plangintza bat prestatu dute.

## GUIX

**GUIX 168, 1991ko urria**

**FORTUNY, M.: "L'educació viària infantil", 43-45 orr.**




**GUIX 169, 1991ko azaroa**




**EDO i BASTÉ, M.: "El càlcul mental a parvulari", 11-16 orr.**

**GIMÉNEZ, J., GOMEZ, B.: "El cálculo mental: Bibliografia", 29-31 orr.**

**GUIX 170, 1991ko abendua**



**VILLAESCUSA, J.: "Els oficis al parvulari, d'inmersió", 37-42 orr.**

**GUIX 171, 1992ko urtarrila**




**COLOMER, T.: "La literatura infantil i juvenil a l'escola", 4-9 orr.**

Haur literaturaren bilakaera eskolan eta irakurzaletzeko hainbat ekintza.

**PRAT, A.: "Llegir a parvulari i a Cicle Inicial", 15-19 orr.**

Gaur egun gelan irakurtzea praktika nahiko normala dela pentsatuz, artikuluaren egileak, irakurzaletasuna bultzatu nahian, oinarrizko orientabideak ematen dizkigu.

**GUIX 172, 1992ko otsaila**




**TACHER, P.: "Educació viaria", 4-6 orr.**

**PICAÑOL, J.: "La seguretat en el trànsit", 7-10 orr.**

**CRUSET, M.: "Educació viària i cívica. Experiència al districte de Les Corts", 11-17 orr.**

**DINARES, E.: "La intervenció municipal en l'educació viària", 19-23 orr.**

**FORTUNY, M.: "L'educació viària escolar", 39-42 orr.**

**UCAR, X.: "La comunicació a la comunitat escolar", 57-59 orr.**

**SALO, N.: "Elements de comunicació a la classe", 61-64 orr.**

**GUIX 173, 1992ko martxoa**




**BATZU: "Aigua, aire, terra i foc: tallers al parvulari", 37-40 orr.**

Gai baten inguruan "Les Fronteres" ikastetxeko ziklo guztiek planifikatutako ekintzak, antolaketa eta tailerrak.

**GUIX 174, 1992ko apirila**




**Gai monografikoa: "Els conflictes a l'escola i a casa".**

FUNES, J.: "Conflicte educatiu: un problema a dues bandes", 5-7 orr.

CELA, J.: "La disciplina és un bé necessari", 9-12 orr.

CASAMAYOR, G.: "Identificació, anàlisi i resolució de conflictes", 15-20 orr.

GUITART, R.: "La prevenció de conflictes en l'àmbit familiar", 29-34 orr.

## INFANCIA Y SOCIEDAD

**INFANCIA Y SOCIEDAD 8, 1991ko martxoa-apirila**

**Monografikoa: "Tiempo libre en el ámbito de la infancia".**




Gai honen inguruan "Infancia y Sociedad" aldizkariaren ale honek bost artikulu mota argitaratzen ditu:

*1. Artikulu teorikoak*

**BARNETT, L.A.: "El ocio en la infancia", 5-16 orr.**

**TRILLA, J.: "Revisión de los conceptos de tiempo libre y ocio. El caso infantil", 17-32 orr.**

**MENDIA, R.: "Principios pedagógicos del tiempo libre. Corrientes de pensamiento", 33-50 orr.**

**CEMBRANOS, F.: "Tiempo libre, aprendizaje y futuro", 51-60 orr.**

*2. Animatzaileen prestakuntza*

**VICHÉ, M.: "La formación de animadores para el tiempo libre", 85-100 orr.**

*3. Elkarteak*

**SANAHUJA, J.A.: "Asociacionismo y tiempo libre en la infancia", 101-120 orr.**

*4. Ikerketak*

**LLOP, P.: "Análisis cualitativo de la oferta y demanda de modelos de intervención y gestión del tiempo infantil", 123-136 orr.**

*5. Esperientziak*

**MOLINA, J.: "Asociacionismo y participación infantil: Experiencias de tiempo libre infantil desde Vallecas todo cultura", 137-154 orr.**

*6. Bibliografia*

**"Selección bibliográfica sobre tiempo libre e infancia", 156-164 orr.**

## AULA de innovación educativa




"Grao educación" taldeak, aldizkari berri bat atera du, orain arteko proiektuetan (Guix aldizkaria, Biblioteca del maestro, el lápiz, ... liburu-sailak) bezala, honetan ere, eskolaren berrikuntzarako beharrezko informazioak eskaintzen ditu. Horregatik 2. ale honen berri ematearekin batera aldizkari hau osatuko duten atalen aurkezpena egingo dugu.

Aldizkaria bost atalez osatuta dago:

Gai monografikoa:

2. zb. honetan bi monografiko azaltzen dira. Lehenengoan, irakurketa eta idazketaren irakaskuntza aztertzen da. Orain arte nagusi izan diren ikuspegiek (testu literarioa eta gramatikaren irakaskuntzan oinarritutakoa bata eta testu libreen sormenean bestea) dituzten hutsuneek gaindi ditzaketen bideak zabaltzen dituzte aldizkariaren artikuluetan agertzen diren proposamenak.

"Centro" izeneko bigarren monografikoan, honako gai hauek aztertzen dira: Ikastetxeko curriculum proiektuak bete ditzakeen funtzioak, curriculum diseinuarekin edukiko dituen loturak, eta beste kontzeptuekiko (idearium, hezkuntz proiektua...)erlazioak

"Intercambio", atalean eskola ezberdinetako esperientziak azaltzen dira.

"Punto de vista"n, Cesar Coll-ek ematen die hasiera, atal honetan gai ezberdinen egoerari buruzko erreflexioei, "constructivismo e intervención educativa" delarik aztertzen duen gaia.

Berri bibliografiko eta beste hainbat informazio baliagarri eskaintzen dira "El hatillo" deritzon atalean.

Aldizkariaren batera gelan erabiltzeko materialen eranskin bat eskainiko da eta 2. ale honetan olerkia lantzeko baliabideak dute gaitzat.

# Espazioaren antolaketa

Monografia honetako edukiaren aukeraketarako erabili dugun ikuspegi metodologikoa argitzea lagungarria izan daiteke, alde batetik, aukeratu diren informazioak justifikatzeko eta, beste aldetik, irakaskuntzan, gai honek duen garrantzia azpimarratzeko. Horiexek dira, hain zuzen, ondoko sarreratxoak bete nahi lituzkeen funtzioak.

Hasteko, espazioaren kontzeptuaren azpian egon daitezkeen bi kontzeptu argitu behar ditugu:

• Espazio fisikoa edo espazio materiala. Kontzeptu honekin ondoko gaiak daude lotuta: espazioaren neurriak, espazioaren distribuzioa, materialak, koloreak, argitasuna.

• Pertsonen arteko interakzioak: espazio fisikoan ematen diren portaerak, pertsonen arteko interakzioa, interakzioan sortzen diren rolak, komunikazioa...

Irakaste-ikaste prozesuan, espazioaren antolaketaz hitz egiterakoan, aipatutako nozio biak integratu behar ditugu, biek osatzen bait dute eskolako espazioa edo testuingurua.

Perspektiba honetan, espazioaren antolaketari buruzko gogoeta, irakaste-ikaste prozesuaren teoriaren eta praktikaren oinarrian dago, ikaste prozesua hobeto bideratu dezakeen antolaketa mota lortzea delako, hain zuzen, gogoeta honen helburua.

Irakaste ikaste prozesua oinarritzat hartzen badugu, espazio fisikoari buruz emandako azalpenaren azpian, interakzioari dagozkion gaiak azaltzen dira: espazio honek sortu ditzaken interakzioak, interakziorako laguntza edo oztopoa den, kontzeptuak bereganatzeko lagungarria den...



*Antzuolako Eskola Publikoa*

Eta alderantziz, interakzioaz, komunikazioaz hitz egiterakoan, lagungarria edo eragozlea izan daitekeen gela-antolaketa aipatuko da.

Mª Isabel Cano eta Angel Lledó autoreek gelako antolaketak erantzun beharko lituzkeen beharren zerrenda bat eskeintzen digute:

• Helburu, gogo eta eginkizun berbera duen giza talde bat sortzea.

• Taldeko partaide guztiei material eta aprendizaia mota ezberdinak ahalbideratzea.

• Testuinguru aberatsak eskeintzen duen espazioa.

• Testuingurua, partaide guztien artean eraiki behar dena, denon berezitasunak jaso behar ditu.

Ale monografiko honetarako aukeratutako bibliografiak zein esperientziek, gai hauen inguruan baliagarriak izan daitezkeen erizpideak ematen dituzte.

## BIBLIOGRAFIA:

**ALFIERI, F. eta beste (1984): "Profesión maestro. Las bases". Barcelona: Reforma de la escuela.**

**CANO, M.I., LLEDO, A. (1990): "Espacio, comunicación y aprendizaje", Sevilla: Diada Editoras.**

"...hezkuntzaren psikologiaren erdigunean egon behar den irakaskuntzaren teoria bat, hezkuntza hobeezina lortzeko ingurugiroa ahalik eta erarik egokitzen saiatzen da..." –Jerome Bruner– (26 orr.).

Egileek, Brunerrek dioenari jarraituz, espazioa eta honen antolaketaren garrantzia aztertu nahi dute.

Hau dela eta, galdera honi erantzun nahian ("Gure gelaren antolaketarako erabiliko ditugun erizpideek zenbat beharri erantzun beharko liekete?") hipotesi batzu bota eta adibide zehatzen laguntzaz (gehienak Hasiera Ziklokoak) hipotesi hauek aztertzen dituzte:

- Gelako giroak, taldeko pertsona guztiek elkar ezagutzen laguntzeko lagungarri izan behar du.
- Eskolak, ekintza ezberdinak egin ahal izateko material eta tresna ezberdinekin harremanak izaten laagundu behar du.
- Eskolako ingurugiroak, toki edo txoko ezberdinak eskeini behar ditu.
- Espazioa edo ingurua, taldeko guztien artean eraiki behar da.

Bukatzeko, ikastetxeko espazioen ebaluaketa egiteko orientabide batzuk eskaintzen dizkigute.

Liburua oso ulerterreza da eta adibideei esker Hasiera Zikloko irakasleentzat lagungarria eta aplikagarria izan daiteke.

**COLOMBO, M.A. (1979): "El cuerpo y la organización del espacio" en MOVIMIENTO di COOPERAZIONE EDUCATIVA, "A la escuela con el cuerpo". Barcelona: Reforma de la escuela.**

Espazio irekiak edo itxiak, beroak edo hotzak, ezagunak edo ezezagunak, komunikazioa errezten duten espazioak edo eragozten duten espazioak... Eskolak era batera edo bestera antolatzen ditu espazioak eta aukeraren arabera beren hesziketa proiektua markatu egiten dute.

**DAVIDSON eta beste (1972): "Guarderías infantiles". Barcelona: Nova Terra.**

Klasiko honen kapitulu batek Haur Eskolaren alderdi materialari buruz hitzegiten digu.

Bertan Haur Eskolaren antolaketak duen garrantzia, hots planoak, espazio funtzional ezberdinak, eta bete behar dituen baldintzak azpimarratzen dira.

**ESCOLA BRESSOL "EL CARGOL" (1986): "On est? El nen petit busca el mestre". Barcelona: Patronato Munic. Guarderies de Barcelona.**

**GOLDSCHMIED, E. (1981): "El niño en la guardería". Barcelona: Reforma de la escuela.**

Liburu honetan, Goldschmiedek, espazioari buruzko bi kapitulu eskeintzen dizkigu.

IX. kapitulua ("Exterior de la guardería), klasetik kanpo egin daitezkeen jolasak eta honetarako haurrak behar duen espazioari buruz dihardu.

X. kapitulua ("El edificio de la guardería"), espazioaren erabileraz, apainketaz, giroaren kalitateaz eta abarrez hitzegiten du.

**JANGIZ, R., GAUNA, E., GURPEGI, M.J. (1991): "De guarderías a escuelas infantiles. Análisis estructural de las guarderías infantiles en Bizkaia". Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.**

Azterketa honen bigarren zatian ("De la guardería a la escuela infantil: de lo real a lo ideal), autoreek, espazioaren gaia eta honen garrantzia aztertzen dute; ideala litzatekeena Bizkaiko Haur eskolen errealitatearekin konparatzen dute.

**LAGUIA, M.J., VIDAL, C. (1987): "Rincones de actividad en la escuela infantil (0-6 años)". Barcelona: Graó.**

**MOLL, B., PUJOL, M.A. (1988): "Organización de la clase" en ANONIMOA: "La escuela infantil de 0 a 6 años". Madrid: Anaya.**

Liburu orokor honetako kapitulu honek Haur Eskolaren antolaketaz dihardu. Ondorengo hau azpimarratzen du: haurren garapenaz eta hezkuntzaz erlazionatuta dagoen guztia, heziketa proiektuan sartu egin behar da; hau dela eta, haurraren hezkuntza eta garapenean, inguruak, materialen banaketak eta antolaketak... izan dezakeen eragina aurrikusi egin behar da.

**QUILGHINI, J. (1980): "Disposición del ambiente escolar" en DELAUNAY, A.: "La educación preescolar: teoría y práctica". Madrid: Cincel/Kapelusz.**

Quilginik, espazioa (antolaketa, apainketa, giroa,...) eskola eta gelaren "arima" dela esaten du.

Bertan, denbora luzean egoten dira haurrak, eta beraz, beste edozein lokal ez modukoa da. Intimitate espazioa da, giro on bat lortzeko asko zaindu beharrekoa.

**SAUSSOIS, N. (1986): "Actividades en talleres para guarderías y preescolar". Madrid: Cincel.**

Liburu honek, antolaketa eredu bat eskeintzen du. Eredu honen bidez iharduera librea ahalbidetzen da eta joku

sinbolikoaren esperientziak bultzatzen dira.
Saussoisek, txokoen bidez antolatutako klaseak, aukera eman behar die haurrei denbora egokiro bete dezaten esaten du, lan pertsonalean edo/eta talde lanean sortzen dien beharrak kontutan izan behar dituela, eta, bukatzeko, beren buruen eta inguruaren ezagupenerako haurrei beharreko zaien arlo afektiboari erantzun behar diola gogorarazten du.

**VIGY, J.L. (1980): "Organización cooperativa de la clase". Madrid: Cincel/Kapelusz.**

**WILLIS, A., RICCIUTI, H. (1990): "Orientaciones para la escuela infantil de cero a dos años". Madrid: M.E.C./ Morata.**

Haurrek esperientzia berriak bizi ditzaten, giza-giroaren kalitatea ekipamendu eta marku fisikoaren kalitatea baino garrantzitsuagoa da.
Posible da hezkuntz-proiektu on bat aurrera eramatea baldintza fisiko eskasak direnean, baina ez dago dudarik kondizio fisikoak lan erritmoari kalte egin diezaioke. Hau dela eta liburu honetan espazioa antolatzeko orientazio batzuk ematen dira.

**ZABALZA, M.A. (1987): "Didáctica de la educación infantil". Madrid: Narcea.**

Haur Eskolaren didaktikari buruzko liburu honetako IX kapítuluan, gelako espazioen antolaketari dagokiona, ondorengo aspektuak aztertzen ditu:
Haur Eskolan espazioaren zentzua, espazioa antolatzeko orduan kontutan izan behar diren erizpideak, espazioaren banaketa eta antolaketari buruzko ekintza praktikoak, Haur Eskolan gela-espazioen antolaketa ereduak,... lantzen ditu.


**ANDUJAR, P., BOX, G.C.** (1987-08): "El nostre 'espai'ara". Infancia, 37.

**ANONIMOA** (1989-09): "Els racons com a alternativa educativa". Perspectiva escolar, 137.

**BATZU** (1982-05): "La cocina en el parvulario". Cuádernos de Pedagogía, 89.

**BATZU** (1988-12): "L'espace scolaire: un espace por écouter, pour regarder". L'école maternlle, 3.

**BATZU** (1989-01): "Un espace pour écouter". L'école maternelle, 4.

**BATZU** (1989-02): "L'espace scolaire: un espace pour regarder". L'école maternelle, 5.

**BATZU** (1989-03): "Espace pour dessiner. Espace des découvertes graphiques". L'école maternelle, 6.

**BATZU** (1989-04): "L'espace scolaire: un espace pour limiter, faire comme... les coins de jeux aménagés dans la classe". L'école maternelle, 7.

**BATZU** (1989-05): "Les coins de jeux temporarires ou occasionnels". L'école maternelle, 8.

**BATZU** (1989-05): "Los talleres como cooperación". Cuadernos de Pedagogía, 170.

**BATZU** (1990-05): "¡Hola! ¡adiós!. Comunicación e intercambio". Infancia, 1.

**BATZU** (1991-11): "Les botigues". GUIX, 169.

**BATZU** (1991-12): "Utilizem a fons els espais de la nostra escola?". Infància, 63.

**BATZU** (1992-03): "Aigua, aire, terra i foc: tallers al parvulari". Guix, 173.

**BILLON, M.C., FERRNAD, M.F.** (1990-01): "L'organisation el le fonctionnement des ateliers (2 à 6 ans dans la même classe)". L'école maternelle, 4.

**BOTA, E.** (1979-07): "El taller de cocina". Reforma de la escuela, 9.

**BRUZEAU, F., NETTER, G.** (1988-12): "Etre ensemble dans un coin accueillant: les coussins". L'école maternelle, 3.

**CANO, I.** (1988-05): "Utilización del espacio de la clase". Cuadernos de Pedagogía, 159.

**CLIMENT, M.R.** (1983): "Els tallers a les nostres classes de 5 anys". Perspectiva escolar, 72

**COLS, C.** (1987-06): "El nostre 'espai'ara". Infancia, 37.

**DEFIS, O.** (1986-07): "Educació i marc ambiental". Butlletí dels mestres, 206.

**DEJONGNE, M.** (1985-06): "Transformation d'un restaurant scolaire par une classe de 2 a 6 ans". L'école maternelle, 0.

**DIAZ NAVARRO, M.C.** (1986-09): "Esta tarde toca talleres". Cuadernos de Pedagogía, 140.

**DIEZ, M.C.** (1988-12): "El espacio como proyecto". Cuadernos de Pedagogía, 165.

**DIEZ, M.C.** (1991-06): "El patio de mi escuela es particular". Cuadernos de Pedagogía, 193.

**ESCOLA ITACA** (1984-10): "Experimentació per racons". Guix, 84.

**FONS, M.** (1988-06): "Racons per aprendre a llegir i a escriure". Infancia, 42.

**FRAPAT, M.** (1988-11): "Les regroupements dans la dynamique de la classe". L'école maternelle, 2.

**GAUTHIER, M.T.** (1989-03): "D'une école a l'autre, vivre l'espace autrement". L'école maternelle, 6.

**GIMENO, X.** (1986-04): "Tres paràmetres d'organització". Infancia, 29.

**GINER, A., URIOS, R.** (1990-04): "Talleres y rincones". Cuadernos de Pedagogía, 180.

**GOMEZ, I.** (1981-09): "Con las manos en la masa". Reforma de la escuela, 32.

**GRUPO BARTULOS** (1989-10): "El aula como espacio". Cuadernos de Pedagogía, 174.

**JIMENEZ, N.** (1981): "L'espai i l'infant a l'escola bressol". Perspectiva escolar, 52.

**LABENNE, J.** (1984-11): "J'organise ma classe en ateliers chez les petits". L'école maternelle, 2.

**LABORDA, X.** (1985-06): "El aula ideal es real". Cuadernos de Pedagogía, 126.

**LARRAZ, A., FIGUEROLA, J.** (1988-05): "El acondicionamiento de los patios de recreo". Cuadernos de Pedagogía, 159.

**MARTINEZ, M.C.** (1984-11): "Experiencias en preescolar". Cuadernos de Pedagogía, 119.

**MATEOS, A., VALLS, R.** (1982-02): "La configuración arquitectónica". Cuadernos de Pedagogía, 86.

**MENDEZ, L.** (1992-03): "Jugar a casitas". Cuadernos de Pedagogía, 201.

**MENDIA, R.** (1985-06): "Jolas-txoko bat Barakaldoko "Miranda" Herri ikastolan". Eskola, 8.

**MOLINA, L.** (1982-02): "Algunas reflexiones psicopedagógicas". Cuadernos de Pedagogía, 86.

**MORALES, M.** (1982-02): "Utilización y práctica pedagógica". Cuadernos de Pedagogía, 86.

**MUNTANYOLA, J.** (1988-05): "Espacio y cultura, una revolución educativa y pendiente". Cuadernos de Pedagogía, 159.

**NEE, D.** (1988-12): "Regroupements autour d'un document privilégié: la photo de classe". L'école maternelle, 3.

**POL, E.** (1982-02): "Bibliografía". Cuadernos de Pedagogía, 86.

**POULAIN-BERGER** (1985-03): "La cour aménagée". L'école maternelle, 6.

**PROSPER, I.** (1981-08): "Los talleres y sus posibilidades en la formación de los niños". Reforma de la escuela, 31.

**PUJOL, I., NADAL, M.** (1981-04): "Nene, no toques ¡caca!. Reforma de la escuela, 28.

**PUJOL, M. A., FIGUERES, C.** (1988-02): "Los rincones de trabajo". Cuadernos de Pedagogía, 156.

**PUJOL, P.** (1989-04): "L'edifici escolar actual, pot acollir la classe de tres anys?". Infància, 47.

**QUILGHINI, J.** (1991-01): "Mobilier scolaire ou accompagnement spatial de la pédagogie". L'Ecole Maternlle, 5.

**REYES, I., ZARAUZ, M.** (1988-03): "La casita". Cuadernos de Pedagogía, 157.

**ROSTAGNO, R.** (1979-03): "Los talleres en la escuela". Reforma de la escuela, 5.

**RUE, J.** (1989-05): "El trabajo cooperativo por grupos". Cuadernos de Pedagogía, 170.

**RUE, J.** (1987-02): "Talleres, ¿actividad o proyecto?". Cuadernos de Pedagogía, 145.

**SALAÜN, G.** (1984-12): "Un nouvel espace en section de petits: une plataforme de différents niveaux". L'école maternelle, 0.

**SANCHO, J.M.** (1991-05): "El entorno físico y simbólico de la enseñanza". Cuadernos de Pedagogía, 192.

**SEGARRA, J.** (1988-05): "Una experiencia de arquitectura escolar: la "Escola Espiga'". Cuadernos de Pedagogía, 159.

**TARRADELLAS, R.M.** (1987-04): "Seminari: organització de l'aula per racons". Butlletí dels mestres, 217.

**VIÑAS, M., DELGADO, J.** (1988-05): "Redistribución de espacios en la E.G.B.". Cuadernos de Pedagogía, 159.



*Larramendi Ikastola*

# ESPAZIOEN ANTOLAKETA: HEZITZAILEEN GENESIA

*Axun Zabalo, Mª Eugenia Irazabal, Rosa Agiriano, Mila Etxezarreta, Xabier Etxeberria eta Axun Mujika (Antzuolako Eskola Publikoa), Juanjo Kintela (UNED-Bergara), Koro Lete (Musakolako Eskola Publikoa-Arrasate).*

**Hemen doakizue gure lanaren bilakaera.**
**Gure buruetan izandako aldaketak eta, honen ondorioz, haurra eta hezkuntza ulertzeko era eta espazioen antolaketa azaltzera gatoz.**
**Antolaketa honen oinarrian, marku psikopedagogiko konkretu bat dago: konstruktibismoa eta pedagogia operatorioa.**
**Gure praktika eta zuena, momentu askotan bat datozela konturatu ahal izango zarete.**
**Idatzi hau erreflexiorako baliogarritzat jotzen dugu; hau da, eguneroko praktikan eten bat egin eta pentsatzen jartzeko.**

Gaurko praktika azaldu baino lehenago, aurreko urteetan egindako lanaren laburpen bat egitea beharrezkoa iruditzen zaigu, emandako genesia ezagutu gabe gaur egungo egoera ulertzea ezinezkoa bait da.

Beraz, 1980-81 garren ikasturtean hasi eta emandako aurrerapausoen deskribapen bat egingo dugu.

## I. URRATSA: DUALISMOA

Gelak eta denbora, bi bertientetan banandurik daude: A eta B deituko diegu.

A: Helburu eskolarren errentagarritasunaren denbora-espazioa

B: Joku librearen denbora-espazioa




A espazio-denborak garrantzi haundia dauka irakaslearen buruan, irakaslea aprendizaiaren ardatza delarik.

Helburu eskolarrek daukate pixurik haundiena.

Aprendizaiak talde haundian egingo dira, ekintza kolektiboen bidez.

"Lana" bukatu ondoren (A espazio-denboran antolatutako ekintzak) B espaziora joango dira.

B espazio-denboran (Joku librea) helburu eskolarrak ez dira kontutan hartzen. Berezko ekintza bat delako egiten dute jolas haurrek, baina ez zaio garrantzirik ematen. Hezitzailearen ustetan, jolas li-

brearen bidez ez dago aprendizaiarik, ez behintzat aprendizai eskolarrik.

Antolaketa honen bidez, joku librean gertatzen dena behatzeko aukera izango du hezitzaileak.

*II. URRATSA A: TALDE TXIKIA APRENDIZAIAREN ARDATZA bihurtzen da eta espazioak honen ondorioz antolatzen dira: TALDE FIJOA eta ROTATIBITATEA.*

Haurrak espontaneoki nola antolatzen ziren behatu ondoren, konturatu ginen talde txikietan ibiltzeko joera azaltzen zutela. Bestalde, konturatuta geunden ekintza kolektiboetan zenbait haurrek ez zutela parterik hartzen.

Hau dena kontutan harturik eta konstruktibismoaren teoriaz jabetzen hasi ginenean, talde txikia egokiagoa ikusi zen, aprendizaiak era konstruktibista eta operatorio batez eboluziona erazteko.

Beraz, antolaketari dagokionez, espazio aldetik aldaketa bat egiten da: orain bost espazio egongo dira (E1, E2, E3, E4, E5) eta haurrak talde txikietan mugituko dira. Talde horiek fijoak izango dira eta rotatzen joango dira espazio guz-tietatik pasatu ahal izateko.

Funtsean lehengo antolaketa eta hau oso gertu daude. E1 espazioa, hezitzailearen espazioa izango da eta berak izango du garrantziarik haundiena. Beste espazioak jolas espontaneoa bultzatzeko pentsaturik daude.

E1=A espazio-denbora

E2, E3, E4, E5=B espazio-denbora

Hezitzailea E1 espazioan zentratuko da: bertan, haur talde txiki bat hartuta (5-6), helburu eskolarrak betetzen saiatuko da.

Gainerako haurrak espazio ezberdinetan zehar banandurik egongo dira, espontaneoki jolasten.

Antolaketa mota honek, aurreko antolaketa eskeintzen zuen aspektu bat ezinezkoa du: hezitzaileak E1 espazioan egonez, ezin du beste espazioetan gertatzen dena behatu. Horregaitik beste aurrerapauso bat ematea pentsatu zen.

estrukturatuak izango dira.

Haur eta hezitzailearen espazioaren desagerketa izango dira aldaketarik nagusienak.

Espazio bakoitza helburu konkretu batzuk betetzeko pentsaturik dago, eta pauta konkretu batzuk daude aprendizaiak aurrera eramateko. Bukatu ondoren espazio bakoitzean dagoen materialarekin jolas espontaneoan aritzeko posibilitatea izango dute.

Aprendizaiak talde txikietan egiten dira, taldeak fijoak direlarik. Talde guztiak espazio guztietatik pasatzera beharturik daude.




*II. URRATSA B: HEZITZAILEAREN ESPAZIOAREN DESAGERKETA: ESTRUKTURATUTAKO APRENDIZAIAK BESTE ESPAZIO GUZTIETARA ZABALTZEN DIRA. TALDE FIJOAK eta ROTATIBITATEA.*

Espazioak lehen jolas espontaneorako erabiltzen baziren, orain aprendizaiak aurrera eramateko oso

Aprendizaiak hartzen du pixurik haundiena antolaketa honetan, nahiz eta espazio guztietara zabaldu. Espazio bakoitzean bi irakurketa egiten genituen:

E1 A (aprendizaiak), E1 B (jolas espontaneoa)

E2 A, E2 B, E3 A, E3 B, E4 A, E4 B, E5 A, E5 B.

Garrantzizko momentuan aurkitzen gara: Hezitzaileak, jolas espontaneoaren bidez, aprendizaiak egitea posible zela susmatzen




hasi ginen.

Intuizio honek aurrera pausu bat ematera bultzatu gintuen.

## *III. URRATSA: DUALISMOA GAINDITU: JOLAS ESPONTANEOA APRENDIZAIAREN OINARRIA BIHURTZEN DA. TALDE FIJOAREN DESAGERKETA. ZIRKULAZIO LIBREA.*

Talde fijoak desagertu badira ere, talde txikia lan intelektualak aurrera eramateko egokiagoa dela jarraitzen dugu pentsatzen.

Era berean, berretsi egiten dugu edozein espazio egokia dela aprendizai prozesuak bultzatzeko. (II. MAILA Bk zuen berezitasuna).

Baina oraindik ere gure buruetan zera dago: estrukturaturiko aprendizaia, haurrak zerbait ikasteko bide bakarra deritzaigu. Joku espontaneoa ona eta beharrezkoa ikusten badugu ere, aprendizaiak bultzatzeko baliorik gabekoa ikusten dugu.

Hala eta guztiz ere, guk joku eta hizkuntza espontaneoan zer gertatzen zen ikusteko gure buruari baimena eman genionean , aktibitate-ekintza hauek, intelektualki oso estrukturatuak zeudela konturatu ginen.

Orain arte haurrenganako kontzentrazioa eta atentzioa irakasleak lortu eta sorrarazi behar zuela uste bagenuen ere, orain, ordea, haurrek aktibitate hauetan jartzen duten kontzentrazioa, atentzioa, mimoa...ditugu uste horren kontraste gisa.

Poliki-poliki, haurren aktibitate espontaneo guztietan, materialarekiko eta beste haurrekiko interakzioan, beti-beti aktibitatea oinarritzen deneko armazoi logiko-matematiko bat dagoela ulertzen joan ginen.

Armazoi logiko-matematiko hau geroz eta era eboluzionatugoetara zihoan etengabeko aldaketen bidez, era ez-estatikoan.

Bestalde, teorian irakasleok erakutsi beharrekoak ziren nozio, estrukturak, kontzeptu, ordenakuntza, habilidade eta pentsamendu prozesoak, haurren ekintza eta hizkuntza espontaneotan agertzen zirela ohartu ginen.

Aztertu genituen, halaber, hainbat situazioren aurrean, helduaren kreatibitate eta originalitate maila behean utziaz, haurrek zituzten estrategia pertsonalak. Eta konturatu ginen sarritan haur hezkuntzako


Antzuolako Eskola Publikoa

programetan sartzen ez ziren helburuez hitzegin eta lana egiten zutela. Horrelakoek, behin eta berriz, gu gure lekutik ateratzen gintuzten.

Era honetan, Piageten teorian inplizitoki agertzen zaiguna frogatzen ari ginen. Adin hauetan, JOKUA INTELIGENTZIA DA... ez da laguntza, erraztasuna, balio duena, bidea... INTELIGENTZIA DA.

Une honetatik aurrera II. mailako gela-diseinua txikiegia egin zitzaigun, hobeto esanda, haurrek eragiten zuten txiki geldi zedin.

Hau dena kontutan harturik, ondorio garbi bat atera genuen: aktibitate espontaneoak garatzeko, espazio ezberdinez osaturiko gela bat eskeini behar genien haurrei.

Espazioak eta espazio bakoitzean dagoen material mota ezberdinak, prozesu logiko-matematiko batzuen saturazio mailan bereiztu daitezke (gehiago, gutxiago). Hau da, espazio batzuetan arrazonamendu espaziala gehiago bultzatzen da, beste batzuetan numerikoa... baina hau, garrantziari dagokionez, bigarren mailakoa da.

Garrantzizkoena ez da haurrak "hau", "hori" edo "bestea" ikastea, baizik eta, haurrak, objetuak, fenomenoak, gertaerak... erlazioan jartzea, alde batera utzirik egiten dituen erlazioak zein motatakoak diren ("numerikoa", "tenporala", "ordinala"...).

Bestalde, ezagupen logiko-matematikoaren izaerarekin, joku espontaneoan oinarritzen den espazio-diseinu izaerako proposamen bat dator: ezagupen logiko-matematikoa, haurrak eraikitzen dituen erlazioetatik abiatu eta garatuko da. Ez dago irakasterik.

Maila honetara iristean, aurreko banaketa diseinuak atzean utzi ditugu. Aprendizairako lehen gaia edo oinarria joku espontaneoa da.

Ikusi dugu haurren aprendizaiak ulertzeko hezitzaileak egin duen aldaketa eta, era berean, bere buruan dagoena, gelen-espazio diseinuan isladatuko dela. Beraz, diseinu dualista atzean gelditu denean, gela erreala eta hezitzailearen buruan dagoen gela, berdinak izango dira.




"Talde fijoa" eta rotatibitate iturburuak atzean utzi ditugu. Azter ditzagun bi aspektu hauek.

Ekintza bat aurrera eramateko, haur talde berdina elkartzea beti, eskolaurre mailan ez da espontaneoki ematen den zerbait. Era berean, haurrak ez dira beti berdinak elkartzen, batzuetan batzuekin eta besteetan besteekin ikus ditzakegu.

Haurrei autonomoki antolatzen uzten zaienean, egoera sozial ugari ikusten ditugu eta honek adierazten dizkigu talde fijoak izan ditzakeen mugak.

Egia da, denboraren poderioz eta ebolutiboki, haurrek, erlazio taldea estabilizatzeko joera dutela, baina sozializazioaren prozesuko fase hau "operazio konkretu"en periodoari dagokio.

Rotatibitatea, aurreko diseinuetan, espazio desberdinetan antolaturik zeuden aprendizai ekintzetatik pasa beharrak justifikatzen bazuen ere, orain ez dago aprendizaietara jotzerik hori justifikatzeko. Izan ere, espazio desberdinetarako proposatu den joku espontaneoa gauzatzeko markoak eta armazoi logiko-matematiko bakar baten izaerak, deuseztatu egiten bait dute.

Dena den, nahikoa dugu gelako haurrengan pentsatzea, rotatibitatearen beharra argumentatzeko (beti aurkituko dugu haur bat edo beste, egunero espazio batetan dagoena edo espazio

horretatik ateratzen ez dena).

Puntu hau sakondu dezagun: haur bat beti espazio berdinean egotea, berez, ez da arazoa. Beharrezkoa dugu haur horrek espazio horretan zer egiten duen jakitea.

Haurra espazio horretan erabat "sartuta" badago, gauzak lehiatsu, ziur eginez, ez dugu zertaz arduratu behar. Eskolaurreko azken helburua (eta baita hezkuntzarena ere) haurrek egiten dituzten gauzengaitik eta gauzengan ilusioz eta lehiatsu aritzea da.

Aitzitik, haurra geldi, produkzioetan eskax... ikusten badugu, hau bai dela arazoa! baina arazo honek beste dimentsio bat hartzen du, errepikapen honek haurraren angustiara eramaten gaituelako zuzenean. Gisa honetako haurrentzat rotatibitatea ez da arazoa konponduko duen zerbait, baizik eta arazoa zirriborratuko duen zerbait.

Beraz, funtzionamendua, orokorrean, ZIRKULAZIO LIBREAN oinarritzen da, eta ordena erreztuko duten arau batzuk izango ditugu (garrantzitsuena, materiala lekuz aldatzearen debekua litzateke, eta bigarrenez, haurrak ez pilatzea leku batean).

Honen arabera, haurrak nahi duen espazioa aukeratuko du, nahi dituen lagunekin eta nahi duen denboraz.

Lehen begiradan, antolaketa honek, aurretik zegoen gela berbera ematen badu ere (II. maila B), erabat desberdintzen dituena zera da: JOKU ESPONTANEOAN oinarritzea eta ZIRKULAZIO LIBREAN aritzea.

## *IV. URRATSA: III. MAILAKO ESTRUKTURA, GELA INTER-KOMUNIKATURIKO MODELO BATETARA EGOKITZEA.*

IV. urrats honek 1986-87 ikasturtean martxan jarritako diseinuari dagokio.

Oraingo diseinu honetan, III. mailan aurkeztu dugun joku espontaneoa eta zirkulazio libre diseinuan, gela zabalen funtzionamenduan sartzea litzateke.

Ikus ditzagun egindako aldaketen zergaitiak.

Alde batetik, nahiz eta lan/jolas banaketa gainditu, heldua hezkuntzaren ardatza izatearen



*Antzuolako Eskola Publikoa*

zamak pixu haundia du.

Banaketa-oinarri hori atzean uzteak (III. maila) ere, ez du esan nahi eskolaurreko hezkuntza identitatearen bilakaera helmugara heldu denik. Gaurko mendebaldeko bizitzan ematen diren pribatizazio eta inkomunikazioak, hezkuntza praktika honetan badute ondoriorik.

Inkomunikazioa eta pribatizazioa eman ez daitezen, koordinazio bilerak ditugu. Batzar askotan, egiazko konfrontazioa, bilakaera eta abar ez dira behar bezala azaltzen. Lan burokratikoa eta administratiboa kenduz gero, denbora badago guztion artean erizpide komun batzuk bilatzen saiatzeko: ebaluazioa, euskararekiko estrategiak..., baina irakasle guztiok elkartuta egonik ere, bakoitzaren praktika ixiltzeko joera izaten da. Badirudi "besteak" edo "bere epaiak" beldurra ematen duela; batzarra bukatu ondoren, ordea, irakasle bakoitza beste batekin edo intimitate baten barruan, bere praktikaz hitzegin beharrean aurkitzen da.

Bestalde, batzar hauetatik kanpo, irakasle bakoitza atea itxirik BERE gelan eta BERE haurrekin aritzen da kutsu pribatua emanez.

"Besteen aurrean", "besteen begirada"-pean lana egiteak, lasai sentitzeak, ahalbideratu du IV. maila honetarako pausoa noski. Diseinu honek, irakasleengan eman den eboluzioa bultzatu eta errazten du, zeren eta gelak irikita edukitzean, koordinazioa ez da obligazioa edo bete behar bat, BEHAR bat baizik. (Funtzionamendu hau dela eta, irakasle bat bere haur batzuekin eta beste irakasle baten edo batzuen haurrekin aurki daiteke espazio batean).

III. urratsako diseinua egin arte haurrak pribatizazio eta inkomunikazioan sartzen genituen. Haur taldea, taldearekin eta bere irakaslearekin bakarrik jartzen zen harremanetan.

Bestalde, adin ezberdinetako haurrak elkartzea posible izan da orain arte eskolatik kanpo edo jolas orduetan (errekreoa), izan ere eskolak ez zuen bereganatzen haurren elkartze librearen potentzialitatea.

Gela irekien funtzionamenduarekin, eskolak elkartze sozial konplejo eta errealagoak egiteko posibilitate gehiago eskaintzen die haurrei: adin, maila sozio-kultural... desberdinetako haurrek heuren artean aritzeko, eta heldu bat baino gehiagorekin erlazioa posibilitatzen du. Eskolak, horrela, haurren garapen intelektualari bultzada bat ematen dio, elkartze marko sozial berriak, "deszentrazio ariketa" ugariak eskatzen bait ditu.

Azkenik, gela irikien funtzionamendu honek, espazioaren eta errekurtsoen erabilera arrazionalizatuagoa izan dadin eragiten du.

Eskolaurre mailan erabili daitekeen espazioak garrantzi haundia du. Beraz, adibide gisa, ez du zentzurik konstrukziorako bi espazio edukitzeak, bakoitzean 60 pieza eta 10 m² ditugularik, 120 pieza eta 20m² eduki ahal izan ezkero.

Era berean, eta arrazoi gehiagoz, errekurtso materialak mugatuak direnean, ez da berdina 2 edo 3 gelatan material berdina errepikatzea edo espazio batetarako prestatzea eta txoko bakar hau horretarako prestaturik dauden materialez hornitzea; era berean, espazio bakar honek (lehengo adibideari jarraituz, konstrukziorako egurrak), eskolaurreko haurren mobilitate eta akzioari hobeto egokituko zaion espazioa emango bait digu m²tan.

### Topologikoki

IV. maila honetan aurreko diseinuan lortutako gauzarik garrantzitsuena mantentzen da: gelak, errealitatean eta irakaslearen buruan daudenak, berdinak dira.



## GAUR EGUNGO EGOERA: INTERKOMUNIKATURIKO GELAK. ZIRKULAZIO LIBREA.

Egindako bide luze honetan, gure buruarekiko seguritatea eta konfidantza haunditzen joan dira, oztopoak gainditzen joan garen neurrian. Gure praktikaren etengabeko azterketa eta ebaluaketak, hezitzaileen ikuspuntuen konfrontazioak..., eman digute aurrera jotzeko arrastoak. Honetan datza gure bilakaeraren oinarria.

Ikus dezagun zein den gelen antolaketa, espazioari eta taldeei dagokiena, hain zuzen ere.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzaren 1. eta 2. mailak, ziklo bat bezala hartzen dugu. Honen arrazoia, batez ere, bi zikloen artean ematen zen apurketa gainditzeko asmoan datza. Duela urte batzuk bide honetan jarri ginen eta gaur egun egiten dugun balantzea ezin da positiboagoa izan.

Beraz, adinka honela elkarturik daude: alde batetik 3 eta 4 urtekoak eta beste aldetik 5 urte, 1go eta 2. mailak.

Espazio aldetiko diseinua berdina da. Aldatzen dena materiala da, adinetara egokituta dagoelarik.

Dauzkagun espazioak hauek dira:

— Eraiketak:
  .mahaikoak: exin, lego...
  .lurrekoak: egur erreglatuak
— Plastika: hiru espaziotan banandurik
  .Marrazkien espazioa
  .Modelatzeko espazioa
  .Sormena: "material de desecho"
— Mahai jolasak:
  partxis, domino, kartak, puzleak, "¿Quien es quien?", xakea, estrategiako jolasak...
— Liburutegia
— Espazio txuria

Espazio honi txuria deitzean, aldakorra dela esan nahi dugu eta proposamenik ez badago hutsik egongo dela (txuria).

Espazio hau zenbait eskaera edo interesi erantzuna emateko dago pentsaturik. Beraz, espazio hau izan daiteke sukaldea, bolotokia, aintzinako gizonaren tresnak egiteko tokia, maketak egiteko tokia edo aparailuak desmontatzeko tokia.

Haurrek ekarritako zenbait gauza erabiltzeko egokituko dugu momentu batzuetan (boloak, txapak, kanikak, gabon ondorengo jostailuak...), beste batzuetan haurren proposamenak aurrera eramateko (ogia egin, tartak, palomitak, aintzinako gizonaren tresnak, denda bat...) eta besteetan geuk, helduek, proposatutako beste ekintza batzuk egiteko ere (ezagupen fisikoa: zirkuituak eta kanikak, aparailuen desmontaketa, xaboi ponpak, itzalak...).

Esan beharra dago geuk egiten ditugun proposamenak aurrera eramateko zailtasunak aurkitzen ditugula, materiala prestatzean batez ere.

Espazio honek, Lehen Hezkuntzaren hasieran, beste zentzu bat hartzen du, 2. mailan batez ere, eurek aukeratzen duten gaiak toki haundia hartzen bait du.



*Antzuolako Eskola Publikoa*

— Aprendizai estrukturatuen espazioa.

Espazio hau 1go eta 2. mailetan dago eta bertan irakurketa-idazketaren aprendizaia eta batuketa-kenketaren errepresentazio grafikoak egingo dituzte. Horretarako egunean zehar denbora bat dute.

Dauden espazioak aipatu ditugu. Ikus dezagun orain zein den espazio horietan mugitzeko antolaketa.

Gela-talde bakoitzak bere irakaslea du, eta, bere gelan, elkartzeko, karpetak gordetzeko, espazio bat daukate. Espazio honetatik kanpo, gela bakoitzean badira beste espazio ezberdin batzuk (2-3), espazio bat beste geletan errepikatzen ez delarik.

Haur talde bakoitzak, bere irakaslearekin elkarrizketa denbora amaitzean, geletako ateak irekitzen dira eta espazio ezberdinetan zehar, zirkulazio librean hasten da, orain bai haurrak eta bai hezitzaileak inplikatzen direlarik.

1go eta 2. mailak, elkarrizketa bukatu ondoren aprendizai estrukturatuen espaziora pasako dira eta denbora hori amaitzean, zirkulazio librean hasiko dira, 5 urtekoak lehenago hasiko direlarik.

Zirkulazio libreak espazioetan libre ibiltzea suposatzen badu ere, pentsamenduaren zirkulazio librea ere badakar berarekin.

Eskola, elkartzeko leku bat bezala ulertzen dugu, haurrak elkarrekin eta helduarekin harremanetan jarri eta material eskeintza haundia izango dutelarik, lanera bultzatuko dituen distentsio giroan barne, era autonomo batean funtzionatzeko.

Zirkulazio librean ibiltzeak ez du esan nahi, haurrak inongo kontrolik gabe dabiltzanik. Alderantziz. Zirkulazio librea posibilitatzen duen antolaketa oso aztertuta dago. Espazioa haur kopuruak mugatuko du eta hezitzailearen rola garrantzizkoa izango da.

Haurrak espazioetara joan baino lehenago, hezitzaileak eskatuko die aurrez pentsatzeko nora joango diren eta zer egingo duten.

Hezitzaileak, ausartzen ez direnak animatuko ditu espazioetara joan daitezen eta material berriak proba ditzaten.

Haurrak espazioetan daudenean, hezitzailea bi mailatan inplikatuko da: jolasean parte hartzen edo behatzen.

Aukera ematen duten espazioetan, aurre-proiektuak egitea eskatzen zaie, bakoitzaren mailara egokituak. A.b. sormenaren espazioan, 3 urteko haur bati eska geniezaioke zein kaja pegatu nahi duen. 2. mailako haur bati berriz, robota egiterakoan aurrez paperean adierazteko eska diezaiokegu.

Haurrek egiten dituzten gauzak, besteei erakusten zaizkie, eta beste adineko haurrekin ere, harremanak zainduz, horrelako elkartrukeak egiten dira.

Aurreko kurtsoetan egindako lan batzuen filmazioak (egurrekin egindako eraiketak, aurten a.b.) ikusi dituzte, ideiak hartzeko.

Haur konkretu batzuekin,




*Adibide gisa 3 eta 4 urtekoen gelen antolaketa espaziala.*

hezitzaileek beraiei zuzendutako proiektuak egiten dituzte, jokaera orekatu bat lortzeko. Horretarako, hezitzaileen arteko koordinazioa garrantzizkoa da.

Hezitzailearen aditasuna haurren pentsakera ulertu eta eboluziona arazteko behar-beharrezkoa izango da.

Gure funtzionamenduaren barruan, beste ekintza batzuk ere egiten ditugu, ekintza hauek beste espazio batzuetan egiten ditugularik.

Globalizaturiko ekintzak, talde bakoitzak astean behin egingo ditu. Hauek izango dira: psikomotrizitate saio bat, jolas kooperatiboen saio bat, musika saio bat eta bideo ikustaldi bat. Hiruilabetean behin, antzerki bat prestatuko dute.

Ez dezagun pentsa, helmugara iritsi garenik. Gizartea aldakorra denez Hezkuntzak zer esanik badu zenbait egoerari aurre egiteko eta erantzunak bilatzen saiatzeko.






# ESPAZIOAREN BANAKETA

*Anselmo Vega "Mito" (Angiozar Eskolako Maisua).*

## ESPAZIOAREN BANAKETA

Angiozarko Eskolan bost maila ezberdinetako haurrak daude (3-8 urte).

Eskola honetara iristerakoan eta adin ezberdinetako haurrak ikusirik espazioaren banaketa ezinbesteko lehentasuna izan zen.

Amara Berriko esperientzian oinarriturik, eskolako espazioa txokoz txoko hasi nintzen banatzen. Ez zen lan erraza, txoko batzuetatik bost mailetako haurrak pasatu behar zirelako lan ezberdinak betetzen.

Orain dela sei urte hasi nintzenetik, askotan izan dira aldaketak, baina funtsezko banaketak ez du aldaketa handirik izan. Momentu honetan holaxe dago:

## TXOKOAK

*Antzerkia* izan da beti arlo eta ekintza gehienak globalizatu izan dituen ekintza, bertan adierazmen arloa (antzerki-tailerra), hizkuntza, eta matematikaren parte bat lantzen direlarik.

Materialak: Antzeztokia kortinekin, txotxongiloak, oihalak, karetak, makilatzeko pinturak, ispilua,...

Plastikaren materiala eta musika tresnak...

*Liburutegian* hizkuntza eta esperientzi arloak nagusi izan dira. Aldizkaria, ipuinak, gaiak eta fitxak.

Materialak: Ipuinak, haurrek egindako ipuinak, irakurtzeko liburuak, kontsulta liburuak, plantilak, naturaren karpetak,...

*Inprimategian* bost urtekoentzat irakurketaren eta idazketaren hastapenak lantzeko.

Materialak: inprenta, plantilak, fonemetako pertsonaiak.

*Zenbakien txokoan* matematikaren esperimentazioa eta gainerako lan logiko-teorikoak.

Materialak: Baga-Biga, abakoak, erregletak, mini-Arko, bu-



Angiozarko Eskola

ruketak, kalkulu-fitxak,...

*Etxean* eskeintzen zaio haurrari bere afektibitatea ateratzeko bide bat eta besteekin erlazionatzeko aukera ederra. Gainera, salerosketaren jokuen bidez, matematikarekin hasteko aukera izaten da.

Materialak: etxea teilatuaz, kojinak eta alfonbra, sukaldea eta bere tresnak (tamainu naturala), janariak, panpinak, seaskak, karrua, pelukeria, medikuaren tresnak, telarrak.

janarien fitxak, erosketaren fitxak,...

*Jolastokian* jolasen mundua daukagu. Puzzleak, enkanteak, konstrukzioak, manipulazioak, sinbolikoak (bonberoak, animaliak, aireportua,...).

*Margotegia* nolabait antzerkitailerrarekin lotuta dago, baina independientea ere bada haurraren kreatibitatea gehiago bultzatu asmoz.

Materialak: kortxera bat, tenperak, pintzelak, esponjak, zerak, paper din A-2, din A-3, plastika



Angiozarko Eskola

*Denda*, etxearekin lotuta, matematikarekin hasteko, manipulazioaren bidez noski.

Materialak: erregletak, pisuak, metroak, litroa, panpinen jantziak, janari ezberdinak (lekariak, makarrioak,...) artileak, paperezko dirua, materiala eta berziklatzeko materialak,...

Gure Eskolan, espazioa falta dela eta, batzutan espazio batek bi funtzio ezberdin bete behar izaten ditu, baina ordu ezberdinetan eta beti lotura gordez. Esate baterako, *zenbakien txokoa* arratsaldean *Denda* bihurtzen da, *Inprimategia* den txokoa *Antzerki-tailerra* bihurtzen da arratsaldeetan; gainerako txokoek mantendu egiten dute beren identitatea.

## Antolaketa

Txoko guztietatik pasatzen dira astean zehar ia edade guztietako haurrak, baina bakoitzak bere betebehar espezifikoa izaten du, edo/eta beren posibilitateen neurrian.

Nahiz eta txoko bakoitzean haurrak libertate asko topatu ekintza ezberdinak aukeratzeko, txokoetatik pasatzeko ordutegi konkretua izaten da gehienetan; modu horretan, astean zehar haurrak badaki edozein momentuan zer txokotan egon behar den.

Txoko bakoitzean dauden ekintza ezberdinak aukeratzeko libertate handia dauka, baina ez osoa ekintza guztietatik (edo gehienetik) pasatu behar du eta. Horrela jokatzeak badauzka abantailak egunerokotasunean:

— Haurra ez da egon behar pendiente ea zer esaten duen maisuak.
— Txoko guztietan zer aukeratu ez zaio faltako.
— Lan batekin ez bada konpontzen utzi eta aurrera segi dezake beste batekin.
— Lan erritmoa ez da galtzen

Haurren lana puntu batean oinarritzen dugu:

*«HAURRAK EGIN DEZAKEENA EZ DEZALA IRAKASLEAK EGIN»*

# HAUR ESKOLETAKO ARKITEKTURA ETA ESPAZIOAK

*Arantza Lejarraga (Arrasateko Umezaintza).*

## *OROKORREAN*

0-3 urteko umeentzako eraikitako edifizio batek berauen beharrei egokitutako dimentsioak izan behar ditu; aldi berean, haurrek askatasuna nabaritu behar dute. Edifizioak haurrei lagundu behar die formak, bolumenak, altuerak, orientazioa, argiak eta abar ezagutzen, adin hauetan hasten bait dira estetika-ahalmenak garatzen. Eta guzti hau giro familiarra eta ziurtasuna galdu gabe.

Edifizioa izan behar da sinplea baina aberatsa, misteriotsua, praktikoa, poetikoa, flexiblea, zeren eta adin hauetan kurtso baten barruan haurrengan aldaketa asko ematen bait dira, beste espazio berri batzuren beharra agertuz.



*Arrasateko Umezaintza*

Haurrak, edifizio baten barruan eta kanpoan, gauza asko deskubritu behar ditu.

Barruko eta kanpoko espazioek balio egin behar dute Hezkuntzarako: sukaldeak, komunak, patioak, solairuak (barruko eta kanpokoak), terrazak eta abarrek, argia, euria, haizea eta abarren arabera joku didaktiko desberdinak egiteko aukera ematen bait dute, eta umeengan aktitude, jokaera eta erlazio desberdinak sortzeko eragiten dute.

## *BUKATU BERRI DUGUN EDIFIZIOAN HONAKO EZAUGARRIAK AURKI DITZAKEGU*

### *BARRUAN*

Forma: hiruki bat.

Sarrera (eskailerarik gabe), pasabideak eta eskailera argitsuak,

haundiak, haurrentzako atraktiboak izateko. Dena kolore atseginaz margoturik.

Goiko pisuan eta beheko pisuan sarrera bat. Bestibulo eta gelen artean leihoak, haurrek irakaslearen erreferentzia edozein momentuan izateko.

Ate guztiak daude ondo egokituta inolako istripurik ez izateko, eta gela bakoitzeko ateetan forma desberdinak aurki ditzakegu haurrek bere gela forma bateaz identifikatzeko.

Entxufeak eta pomoak altura egoki batera jarrita eta kalefakzioa ondo babestuta.

Giro familiarra eta ziurtasuna lortzeko, tono desberdinetan nagusiak dira kolore horia eta berdea. Komunetan azulejo txuriak daude garbitasunaren mesedetan.

**GELAK**: oso eguzkitsuak eta argi naturalaz. Berotasuna eman behar dute, horregatik jarri dugu lurrean saipolan-a.

Gela bakoitzean lababo bat. Gela guztietako behekalde osoa arbela bezala erabili ahal da umeen espresio ahalmenak garatzen laguntzeko asmoz.

Geletan, barrutik, espazio batzuk ondo mugatuak (txokoak) eta beste batzuk libre haurren askatasunerako eta kreatibitaterako.

Gelak ez dira espazio aldetik mugikaitzak, baizik eta egokitu egin ahal direnak momentu bakoitzean haurren beharrei erantzuteko zeren eta adin hauetan, lehen esan dugun bezala, hasieratik bukaeraino haurren beharrak oso desberdinak izaten dira eta.

**SOLAIRUEN BANAKETA:**

Bi solairu daude. Bi izatearen arrazoia lekua aprobetxatzearena da batetik, eta urteko haurren ahalmenak aprobetxatu ahal izatearena bestetik, kontutan hartzekoa bait da adin honekin haurrek eskailerak igo, jeitsi, korrika egin, joku kolektiboetan parte hartu eta abar egiten dutela.

*GOIKO SOLAIRUA:*

Irakasleen gela-komunak
2-3 urtekoentzako gela
0-1 urtekoentzako gelak irteera bat dagoela terraza batera
Sarrera

Bi urteko haurrek geletan duten espazioa hau da: Aktibitateentzako, jangela (beheko solairuan), siesta egiteko, komunak, bañera eta entzimera bat haurrak aldatzeko. Dena kristalezko leihoez inguraturik, haurrek irakaslearen erreferentzia edozein momentutan izateko.

Komunak eta lababoak haien alturara.

0-1 urteko haurren geletako espazioa honela dago banatuta: Sehaskentzako espazioa, arrastakoentzako espazioa, biberonarioa, bañera entzimera bateaz, terrazara irteera zuzena. Haur hauek geletan bertan jaten dute.

Espazio hauek ondo mugatuak daude baina haien artean erlazionatuak (kortinen bitartez edo manparak edo beste edozein sistema).

*BEHEKO SOLAIRUA*

Trastero, sukaldea, jangelak (mahaiak eta aulkiak errez jasotzekoak, gero espazio hau plastika, psikomotrizitatea, edo beste edozein aktibitate bertan egin ahal izateko), garbitasuneko gela, kotxeak uzteko gela, despentsa, bi komun elbarrituentzako, sarrera, 1-



*Arrasateko Umezaintza*

2 urteko gelak.

Espazio hauek denak, lehen aipatu dugun bezala, leihoz inguraturik, haurrek irakasleen erreferentzia ez dezaten inoiz galdu.

1-2 urteko gelak. Haur hauek geletan duten espazioa hau da: siestarako, komunak haien altuerara, aktibitateentzako lekua, bañera eta entzimera bat aldatzeko. Haur hauek gelan bertan bazkaltzen dute.

Geletatik kanpora irteera zuzena.



## KANPOAN

Ranpak, eskailerak, pasamanosak, haurrei egokituak.

Traba arkitektonikoak kenduta.

Kanpora joateko, beheko solairuko gela guztietatik irteera zuzena, zeren eta kanpoko espazioak gelaren atal bat izan behar bait da eta ez errekreorako bakarrik.

Jolasteko, lurra altuera desberdinaz eta material desberdinaz egina: areia, harria, lurra, belarra, loseta , testuekin jokatzeko.

Bi patio itxi, forma, kolore eta argi desberdinekin jokatzeko. Patio itxi hauek ere bi alturatan daude eginda; hau aprobetxatuz, erdian ranpa bat egin da, alboetan txirristak eta abar jarri zaizkiola eta badira erdian biltegi bat eta komunak ere (funtzionalitatea dela.eta).

Ortu eta jardinak izateko leku desberdinak, goikaldean badira zuhaitz talde desberdin batzuk udan gerizpe ederra ematen dutenak.

Kanpoko espazioa dena ondo babestuta ziurtasuna dela eta, baina bi sarrera-irteera dituelarik kanpotik ere zuzen sartzeko gurasoak. Hauentzat eta haurrentzat badira bordiloak, eserleku bezala erabil daitezkeenak.

## BIBLIOGRAFIA

*—ROSA SENSAT (Kolek.): "La educación del niño de 0 a 6 años". Madrid: Pablo del Río , 1980.*

*—DAVIDSON eta beste: "Guarderías Infantiles", Barcelona: Nova Terra, 1976(zda). Em-plazamiento de la guardería... Condiciones que deben reunir en Bélgica las guarderías. Material y equipos de las guarderías... Prevención material de los accidentes.*

*—FRIEDEMAN WILD: "Construcciones para la infancia". Guarderías, jardines de Infancia, Centros preescolares. Gustavo Gili , 1979.*

*—El espacio en Educación Infantil. Orientaciones para su construcción. Consejería de Educación de la Comunidad de Madrid. Noviembre 89.*

*—LOGSE. Gutxiengoen Dekretua Haur Hezkuntzan.*

*—OLOVA, J.:" Una aproximación de guarderías y parvularios.".*

# ESPAZIOA PAUSOKAN

*Pausoka Haur-Eskola – Aretxabaleta*

Pausoka, Aretxabaletan kokatuta dagoen Haur Eskola da. Orain dela 4 urte arte Goardia Zibilen kuartela izandako eraiketa baten gaude, bertako bi etxebizitza egokitu eta ahalik eta modurik hoberenean moldatutako lokalean. Honela, barneko azalera 131m²koa da, kanpokoa berriz, 220 m²koa.

Pausokako bizitza eremu mugatu hauen barruan moldatzen da. Talde bakoitzak bere gela du, umeak eta hezitzaileak bertan denbora gehiena pasatzen dugularik.

Leku baten distribuzioak, ekipamendu eta neurriak, alde batetik, eta bertan egunero bizi dituen esperientziak, bai pertsona eta bai taldekoak bestetik, ziurtasuna ematen diote haurrari. Guk hiru haur talde dauzkagu lau gelatan banaturik; honetaz gain, sukaldea, komuna eta bulegoa ere baditugu.

## TXOKOAK

Ekipamenduan pentsatzen hasi ginenean, aldez aurretik gure metodologia zein izan behar zen eta geneukan espazioa zein zen kontutan hartu behar izan genuen.

Aukeratutako metodologia txokoena izan zen. Txokoak, espazio mugatuak izanik, joku aktibitateak egiteko aukera ematen zigun, aktibitate hauek berez, helburu bat zutelako, askeak edo zuzenduak, bakarkakoak edo taldeka egitekoak izan zitezkeelako.

Honetaz gain, txokoak, umearen garapenean ondorengo arloak bultzatzen zituela uste genuen:

- Bere buruaren eta ingurunearen ezagutza.
- Garapenaren erritmoa.
- Pertsona bezala afirmatzea.
- Autonomia lortzeko aukera.
- Esperientzia eta ikerketa alorra zabaltzea.
- Haurrak bere kabuz ekintzak egitea, hau plazerraren iturria



*Pausoka Haur-Eskola*

bihurtzen delarik.

Guzti hau kontutan izanik, eta haurraren garapenaren mementuko ezaugarriak ikusirik, txoko konkretu batzuk sortu genituen:

Sukaldea, txontxongiloak, eraiketarena, liburutegia, espresioarena.

Txoko hauek nahiz eta denboran finkoak izan (urtean zehar mantentzen dira), espazioan aldakorrak dira.

Hasieran, aipatutakoak bakarrik bagenituen ere, laister konturatu ginen ez zirela nahiko haurrek adierazten zuten esperimentazio beharrei erantzuna emateko. Orduan, txoko finko gehiago jartzea ezinezkoa zenez, espazio arazoak zirela medio, formula alternatibo bezala, tailerretan lana egitea erabaki genuen.

Tailer bat antolatzerakoan, aipaturiko txokoen ekipamendua mugitu beharra izaten dugu erosotasun baldintza minimoak bete ditzan, batez ere psikomotrizitate arloa landu behar dugunean.

## EKIPAMENDUA

Gure metodologia eta espazio arazoak kontutan izanik, aukeratutako ekipamenduak ondorengo baldintzak bete behar zituen: mugikorrak, pilatzeko errezak, eskuragarriak, erabilera anitzezkoak eta ahalik eta politenak.

Aulkiak adibidez, esertzeko izateaz gain, psikomotrizitatea, joku sinbolikoa lantzeko espazioa mugatzeko eta abar erabiltzen ditugu. Honetaz gain, kubo erakoak direnez, espazioa handitzeko beharra dugunean, samur pilatzeko eta baztertzeko aukera ematen digute.

Armairuek, gauzak gordetzeko izaten badira ere, espazioa mugatzeko eta bereizteko (txokoak mugatzeko) balio dute.

Mahaiak, psikomotrizitateko pistak egiteko erabiltzen ditugu; atea, ipuinak zintzilikatzeko: kortinak, espazioa mugatzeko, txontxongiloak egiteko etabar...

## GELEN FUNTZIOAK

Haurtzaindegiak bete behar duen funtzio bakoitzerako gela berezirik ez dugunez, gela guztien erabilera bikoiztu beharrean aurkitzen gara.

Seaska gelak izan ezik beste guztiek funtzio asko betetzen dituzte. Honela, 2 gela siestetarako erabiltzen ditugu (1 handientzat, 1 txikientzat) eta bestea jangela bezala.

Pasiloak, jolasleku eta biltoki funtzioak betetzen ditu. Psikomotrizitatea egiteko eta lotarako erabiltzen ditugun koltxonetak, pale baten gainean daude baztertuta, eta pasiloa jolasteko erabiltzen dugunez, jostailuak hormaren goikaldean zintzilikatzen ditugu.

Ondorio bezala, Eskolaren dimentsioak lokalak dituen ezaugarrietara mugatzen gaituela esan dezakegu. Gehienetan eskasa denez, goialdetik berrantolatzera behartzen gaitu. Espazioak dituen salbaezinezko hutsuneak gehienetan hezitzailearen irudimenari esker konpontzen dira.



Pausoka Haur-Eskola

# ANTOLAKETARI BURUZKO GOGOETA BATZUK

*Amara Berri Eskola - Donostia*

Antolaketaren gaia hain irekia, hain zabala izanik, lehendabizi bururatu zitzaiguna lan deskriptibo bat egitea izan zen; alegia, zein antolaketa dugun galderari erantzuteko geziz jositako organigrama, plano eta ordutegi sail bat hartu eta dagozkien adierazpenez hornitu. Baina berehala sortu zaigu kezka: Batetik, era honetako lan batek izugarrizko luzera hartuko luke eta, bestetik, interesatuen artean behintzat, gure koadro horien ezagutza nahiko zabala delakoan gaude.

Beraz, zirriborroak eta organigramak beste baterako utzi eta gaiari zeharka heldu nahi izan diogu, nahiz aurretik jakin zailagoa egingo zaigula eta agian argitu beharrean nahastu besterik ez dugula egingo.

Hasteko, etsai pare bat uxatu beharko genituzke gure antolaketa diseinuetatik. Batetik, inertzia: urteen poderioz ohitura sakralizatuak bilakatu diren errutinak. Bestetik, gure errealitate eta proiektu pedagogikoetatik at dauden adituek sortutako eredu borobil eta "efikazen" kopia.

Duguna eta egingo duguna da egituratu beharrekoa; beraz, irakasle talde bakoitzak bere eguneroko lanaren bidez gauzatuko duen proiektu pedagogikoa eta dituen hezkuntz intentzioak dira antolaketaren eremuak. Ukaezinezko garrantzia daukan gaia dugu eskuartean, axola zaigu egituraketarik egokiena osatzen joatea aurretik jakinik nekez kopiatu dezakegula inoren eredua "harri filosofalarekin" topo egin dugulakoan.

Ez dago antolaketa diseinu neutrorik. Egituratze eredu batzuk datuen ikasketa bultzatzeko, itxurazko ordena edo disziplina mantentzeko egokienak izan daitezke. Ez da gure kasua. Gure antolaketa sistemari zera eskatzen diogu: Egiturak berak, Pentsamendu Sozial Autoegituratzailea sortzen eta garatzen joatea haurrengan.

Jo dezagun, bada, haurrarengana, berarengandik abiatzeko. Haurrak (haur bakoitzak) bere interesgune propioak ditu. Izaki osoa, globala da, arlotan zatikaezina. Bakoitza bere esperientzia -multzo eta kontzeptu- eskema propioan oinarritzen da eta garapenerako potentzial bat du, berea.

Haurra horrela ulertuz, iragaz dezagun pentsamendu sozial autoegituratzailea sortu nahi duen antolaketa diseinua gure metodologi printzipioetatik. Aktibitate printzipioa diogunean, haurraren burua, pentsamendua, lanean ihardutea ahalbideratuko duen egitura behar dugula esaten dugu, gogoan izanik beti jakintsu zaharraren aholkua: "no confundan enseñanza activa con enseñanza agitada".

Ukaezinezko testuinguru soziala garrantzia daukan ikasbidea dugu; are gehiago, ikasketa gehienen kokagunea dela esatera ausartuko ginateke. Beraz, pentsamendu eta ekintzarako askatasunik handiena eskeiniko duen antolaketa soziala gauzatu behar dugu sozializazio printzipioaren eskutik.

Haur bakoitzak esperientzia-multzo bat eta garapen potentzial bat duela esaten dugu eta guretzat

hau horrela izateaz gain, haurren arteko desberdintasun hori elementu aberasgarria da. Egiturak ahalbideratu beharko du izate desberdin hori norberaren interesgune eta erritmoak errespetatuz (Indibidualizazio printzipioa).

Gure eguneroko eginkizun konkretuari hurbilduz, Haur Hezkuntzara, Eskolaurrera joko dugu. Jakina denez, normalean irakasle-ikasle taldea (25 inguru) mantentzen dugu hiru urtetan zehar, urtetik urtera gela aldaketa egiten dutelarik. Gela hauetan haurren adinari egokitutako harreman eta aktibitate gune batzuk ditugu antolatuak (ditxosozko "txokoak").

Gune sozial hauen elementu nagusienak -ikasle taldea, aktibitatearen muina, espazio-denboraren egituraketa,...- egonkorrak dira eta garrantzizkoa da guretzat finkotasun hori.

Prozesuak luzeak eta konplexuak dira eta beharrezkotzat jotzen dugu irakasle desberdinek ikasle talde desberdinekin izandako esperientzia eta emaitzen ondorioekin jokatzea.

Kontestu horiek haurraren bizitza barnebiltzen duen harreman eta edukin (prozesuzkoak, jarrerazkoak, kontzeptualak) mota bat bultzatzen eta suspertzen dute. Osagarriak dira elkarren artean eta urtetik urtera zabaltzen, ugaritzen eta bereizten doaz haurraren garapenarekin batera.

Aitortu nahi dugu, bestalde, garbi asko dugula ez direla ukiezinak; are gehiago, beste txoko batzuk izan balira, agian izan zitezkeen.

Dena den, sinisten dugu martxan ditugun guneetan irakasle talde batek ikasle talde ugarirekin urte luzetan frogatu dituelako. Gure ustetan, beharrezko baldintzak dira hauek hezkuntz proiektu eta antolaketa diseinu sistematizatua, ebaluagarria eta zabalgarria eraikitzen joateko.

Jo dezagun, bada, irakasle talde baten hezkuntz proiektu batetik sortutako antolaketa sistema garatu bat dugula, beti beharko dira aldaketak baina, demagun nahiko borobildua dagoela. Antolaketa horretan, gainera, demagun txertatuak daudela eskolako beste partaide batzuk (zerbitzuetako langilegoa, zuzendaritza taldea, e.a.) eta bide batez egituraketa horrek berak irakasleari hainbat buruhauste (burokratikoak, konponketak, kobrantzak,...) kentzen dizkiola.

Puntu honetara ailegaturik batek baino gehiagok esan digu: "Programazio osatuak, antolaketa egokitua, zer egiten du irakasleak?". Apaltasunez erantzun behar izan diogu nahikoa lan dugula eta izango dugula ajustatzen, berritzen, sakontzen, baina baita beste gauza bat ere: irakasleok patxada behar dugula, ona dela programazio eta antolaketa aldetik amaiezinezko lanez gainezkatuak ez egotea, zeren hortik aurrera mundu berri bat irekitzen zaigu, interbentzioarena hain zuzen.



*Antzuolako Eskola Publikoa*

Irakasle bakoitzak denbora eta patxada izan dezala bere ikasleekiko interbentzioa aztertu, sakondu eta planifikatzen joateko, gerora taldera isurtzeko esperientzia multzo hori.

Azken finean, ikasle-irakasle elkarrekintza horietan, sarritan ahaztutako garapen eta ikasketa prozesuen gakoetako bat dago.

Eta horretan gabiltza.

# TXIKIENEI EGOKITUTAKO PARADISUA (Andoaingo Larramendi Haur-Eskola)

Andoni Urzelai

Inork gutxik gogoratuko du seguruenik gaurko garai hauetan Gulliber pertsonaia zaharrak bizitako abenturak.

Haurrek, dagoeneko beraientzat berau eta beronen historiak zaharkituak gelditu direlako, eta nagusiek, beharbada, umeen kontuei kasu gehiegirik egiten ez dietelako.

Kontuak kontu, batek baino gehiagok beharko genuke hark ikusi eta bizitakoak errepasatu eta gaurko egunetara moldatu.

Nagusien mundura eta tamainara egokitutako gizartea dugu gurea. Handiak dira hiriak. Are gehiago, hauek estaltzen dituzten etxebizitza eta edifizio amaigabeak, handiak, orobat, kotxeak, eta kaleak, eta mahaiak, eta eskailerak. Eta bitartean, ahaztu egin ditugu txikienak, behar eta pertzeptziorik gabeko pertsonaiak bailiran. Bada, dena den, Gulliberren ipuinak errepasatu dituenik ere gure artean; Andoaingo Larramendi eskolaurrearen bultzatzaileak horren lekuko; bertan egin dute eta, txikienei egokitutako benetazko ingurunea: huraxe bai haurraren paradisua.

Espazioak, neurriak, inguratzen gaituzten gauzen tamainak, eragin nabarmena izan du betidanik pertsonen izaera eta hauen ingurune kulturalean. Gauzak, txikiak izaten dira eta egiten ditugu, edo handiak, baina inoiz ez dira tamainaren arabera sailkatu gabeko objetu hutsak izaten. Tamaina ezberdinen pertzeptzioa erabakiorra da beraz gure ingurune ideologiko eta kulturalaren barruan.

Andoaingo Larramendi eskolaurrearen atzetik zebiltzan pertsonek, aspalditik zerabilten kezka hori buruan. Haurrei ingurune berezia egin behar zitzaien, beraien beharretara egokitu ingurune fisiko osoa, bere mundu propioan integratuko lituzkeen ingurune propioa eraiki, azken batean.

Garbi ikusten zen 2, 3, 4 eta 5 urteko umeek beraien ikuspegi eta tamainara moldatutako estruktura fisikoak behar zituztela; gela ezberdinak, txoko ezberdinak, mahai, jarleku, komun, ingurune osoak egon behar zuen haien menpe.

Ideia, Andoni Mendizabal arkitektu Donostiarrak gorpuztu zuen. Guztira, 9 gelaz osatutako eskolaurrea diseinatu eta 1990ean Andoainen bertan ospatutako KILOMETROAK ekitaldian ateratako diruaz jarri zen martxan proiektu berritzaile bezain ausarta.



*Larramendi Haur-Eskola*

Larramendi aurreskolako moduluak, 1991ko abenduaren 24ean inauguratu ziren, 80 miloitako inbertsioa burutu ondoren.

Harrezkeroztik, 185 haur daude 7 gelatan banatuak Larramendi aurreskolan, eta, nabarmenak dira, dagoeneko, eskolaren diseinuak eta ezaugarri propioak lortutako emaitzak.

Gelak, txikiak dira altueraz, erabat haurrei moldatuak. Gelen barnekaldean ere ezaugarri guzti hauek errepikatzen dira. Haurrek erabili beharreko tresneria eta zerbitzu guztiak beraien unibertso partikularrean kokatuak daude; komunetatik hasi eta gelako azken jarlekuraino, nabaria da neurriaren itxuraldaketa hori. Dena dute txikia, edo hobeto esanda, dena daukate beraien tamainara egokitua. Honetaz gain, gelen diseinua kanpotik ere erabat ikusgarria da. 7 gelak elkarren ondoan daude nolabaiteko zirkulua osatuz, eta erdian dagoenak kuaderno baten itxura errepresentatzen du; dena den, gainontzekoei ere ez zaie apaingarririk falta: kolore bizi eta figura ezberdinen marrazkiek apaintzen dituzte gela guztien kanpoko zein barruko hormak eta. Gauzak honela, eskolaren diseinua, erabat erakargarria egiten zaio edonori, eta zer esanik ez haurrei.

Eskolaren diseinu berritzaile honek, eta gaiari buruzko ikerketa seriorik gaurdaino egin ez den arren, eragin erabat positiboak lortu ditu bertako hezitzaileen ustetan. Batetik, psikologikoki, umeen hobekuntza nabarmena izan omen da. Haurra erdigune bilakatu da, eta ondorioz erabat jokaera autonomoa nagusitu da berarengan. Umea jadanik ez dago arrotza zaion kontestu batean murgildua; alderantziz, ingurunea erabat naturala egiten zaio eta honek bapateko erantzuna sortarazten omen du berarengan. Baina haurrez gain, maisu eta andereñoek ere zuzenean ikusi dute eskolaurrearen egitura bereziak sortarazitako eragina. Lana erosoagoa bihurtu omen da, la-saiagoa, eta duda barik, praktiko eta eraginkorragoa.

Esperientzia berritzailea, beraz, Andoaingoa, eta jadanik imitatua ere bai, izan ere, kontzeptu bereko proiektua ari bait da burutzen Andoni Mendizabal arkitektua Bera de Bidasoan. Ez da ez ekimen makala, egungo gizarte honetan ideia berritzaileek ez dute zoritxarrez laguntza gehiegirik izaten eta. Orain, esperientzia hauen eraginak zehatz-mehatz aztertu beharko dira eta, dirudien bezala, ekimenok haurren heziketan aurrepausurik suposatu ezkero, aplikatu egin beharko litzateke Andoaingo Larramendi aurreskolako diseinu eta kontzeptua beste hainbat aurreskolatan. Gulliverren historietako aldrebeskeriak baino zertxobait gehiago dago hemen jokuan.




*Larramendi Haur-Eskola*

**Jakingarriak 21.garren zenbakian argitaratutako:**

**"Ingelesaren sarrera OHOko 1. mailatik aurrera"**

**artikuluaren egileak egindako oharra:**

Lerro hauen bidez zuzendu egin nahiko nuke aldizkari honen 21. zenbakian, atzerriko hizkuntzei eskaini zitzaion alean hain zuzen, nire artikuluan egin nuen omisio barkaezina.

Aipatu artikuluan, Deba Garaian burutzen ari den proiektu baten berri ematen nuen; hots, OHOko 1. mailatik aurrera, atzerriko hizkuntzen irakaskuntza goiztiarra bultzatzeko burutzen ari den proiektua.

Ia esklusiboki AHIZKE-CIM-ek lantzen dituen alorrak sakondu nituen eta aipatu baino ez nituen egiten beste erakunde batzuk, eta ez nuen zehazten, inondik inora, erakunde hauek duten, edo izan duten, aitzindaritza proiektu honetan. Esandakoa dela eta, orain eta hemen goraipatu egin nahi dut proiektu honetan ALMEN Ikastolak burututako lan eskerga, ikastola hau bait da duela lau urte proiektuari hasiera eman ziona, beranduago SAN VIATOR eta SAN FRANTZISKO XABIER Ikastolak batu zitzaizkiolarik.

Halaber, garrantzia eman gura diot HEZIBIDEren baitatik egindako lanari proiektua diseinatu eta gauzatzerakoan, lortu egin bait du hiru ikastola hauek proiektu berean aritzea AHIZKE-CIMekin batera.

AHIZKE-CIMen lanean erreparatzen jarrita, benetan sentitzen dut omisio hau egin izana.

*Saro Manrique de Lara*

# Harbel magnetikoak eta franelografoak



Baliabide bi hauek dituzten posibilitatetatik bat aztertuko dugu aldizkari honetan, gelan sortutako materialen euskarria izatearena hain zuzen. Horregatik ale honetan ez ditugu aurkeztuko harbel magnetikoan erabiltzeko editorial ezberdinek atera dituzten material grafikoak.

Hona hemen material hauen berezitasunak:
DIMAGIC. Eumo editorial:
Hiru material mota eskaintzen ditu editorial honek:



- **Harbel magnetikoak:** errotulagailuak erabili beharrezko harbel konbentzionala bata eta imanak erabili beharrezko harbel magnetikoa bestea.
- **Imanak:** Edozein material itsasteko balio dute.
- **Material osagarriak.**

Irudietan ikus daitezke material hauen zenbait erabilera.




## FRANELOGRAFO SCHUBI

Bi materialek osatzen dute baliabide hau:

- Franelografoa
- Tira autoitsaskorra






**DOKUMENTAZIO ZENTRUA** (0-7urte)

IRAKASLE ESKOLA

Escuela Universitaria del profesorado. Tel. 790440

ESKORIATZA (Gipuzkoa)